

Elkartasun Eguna

Gaueko kontzertuek
Monterron bete zuten
KULTURA, 22-23



Xabier Arnaiz Gipuzkoako txapeldun

Ulma taldeko kadete mailako ziklista
esprintean nagusitu zen Oñatin
KIROLA, 18

Jone bakarlaría

Arrasaten abestu
zuen zapatuan
KULTURA, 26



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko ekainaren 12a • 3. urtea • 105. zenbakia • 0,90 euro

Gorlan hildakoa bidea gurutzatzen ari zela erakusten du lehen ikerketak

Istripua gertutik ikusi zuten lekukoek testigantzak eta bideo-zintak jaso zituen Ertzaintzak

Hainbat froga jaso zituen zapatuan Ertzaintzak, Gorlako igoeran izandako istripuaren ondoren. Ford Sierra autoak J.C.G.O. 50 urteko ermuarra kolpatu zuen tokian jaso zituzten frogok, hain justu, Gorlako igoeraren 26. bihurgunean. Ertzaintzaren atestatu-unitateak lekukoek testigantzak jaso zituen eta baita ikusle batek grabatutako irudiak ere. Bergara Racing tal-

deko ordezkarien esanetan, han ikusten da ikuslea errepidea gurutzatzen ari zela autoak harrapatu zuenean. Ertzaintzaren iturriek ere halaxe baieztatu dute eta ikerketa oraindik zabalik dagoela gehitu dute. Era berean, antolatzaileek baimen guztiak ordenan dituztela adierazi dute eta, istripua nola gertatu zen ikusita, erantzukizunik ez dutela. **17**

50 URTEKO GIZONEZKOA
Hildakoa J.C.G.O. inisialdun gizonetzkoa zen; 50 urte zituen eta Ermuko bizilaguna zen

EGONEZINA NAGUSI
Berehala zabaldu zen gertakariaren berri ikusleen artean eta egonezina nabaria izan zen

26. BIHURGUNEAN
Helmugatik oso gertu jazo zen istripua: Gorlako igoerak dituen 28 bihurgunetatik 26.ean

IGOERA BERTAN BEHERA
Istripu larriaren ondorioz, probako zuzendariak igoera bertan behera uztea erabaki zuen

Angiozarkoek ez dute beteko erabakia

Hezkuntza Kontseilariak egubakoitzean jakinarazi zion Angiozarko eskola txikiko guraso batzordeari eskola ez dutela itxiko. Baina gurasoak ez daude konforme erabakiarekin: "Eskolako bi nagusienak Bergarara jaitsi behar ditugula azaldu digute bidalitako faxean eta horrek esan nahi du Lehen Hezkuntza -12 urtera arte- izatetik Haur Hezkuntza izatera pasatuko garela datorren ikasturtean", azaldu dute guraso elkarteak kideek. Gainera, erabaki horren atzean "eskola hiltzen lagatzeko" asmoa dagoela uste dute. Hori horrela, administrazioaren erabakia errespetatu bai baina beteko ez dutela aurreratu dute. **8**

Gaur hasi eta zapatuta arte ekitaldi ugari Eskoriatzako Aste Zapatistan **11**



JOSETXO ARANTZABAL

IRAGANA EZ DA HORREN AZKAR AHAZTU BEHAR

Gerra eta gerraosteak sortutako zauriak ez dira itxi ibarrean. Horren erakusle izan ziren atzo Arrasaten orduko biktimei egindako omenaldian ikusitako malkoak. Urte asko isilpean egon ondoren, senideen eskubideak bermatzeko lehenengo pausoak eman ditu administrazioak, eta hori hala izateko lan handia egin dute hainbat elkarte. Altxamendu faxisten ondorioz zigortuak izan zirenen senideei azken omenaldia egin zieten Laubide plazan. **2-3**

GEUREAN

- Arrasateko Iturbide egoitzakoak gaur hasiko dira Nagusien Astea ospatzen | 11
- Zabalik dago Aramaioko uda ikastaroan izena emateko epea | 11



Jose Luis Zaldua
Atzegiko
Gipuzkoako
lehendakariarekin
egon gara | 6-7

OMENALDIA GERRAKO BIKTIMEI



JOSETXO ARANTZABAL

Udaletako ordezkariak lore sortak eman zizkieten omenetakoei ekitaldi berezi eta jendetsuan.

GERRAKO BIKTIMAK GOGOAN | IBAR OSOKO BIKTIMEN FAMILIAKOAK ARRASATEN BATU ZIREN ETA OMENALDI HUNKIGARRIA EGIN ZUTEN

Negar malkoak isuri zituzten biktimei egindako azken omenaldian

Lau Bide plazako oroitarriaren aurrealdean egin zieten azken omenaldia gerra garaian fusilatu edo desagerrarazi zituzten 115 debagoiendarrei

Goreti Elortza

11:00etan meza izan zuten parrokiaren eta 12:00etan Laubide plazan elkartu ziren ehunka pertsona omenaldi bereziari hasiera emateko. Euskal Herriaren alde egiteagatik zigortuak izandakoen senide, lagun eta ezagunak gerturatu ziren ekitaldira. Gerra sasoko errepresioaren isla ziren guztiak eta agerian gelditu zen ez dutela ankerkeria

hura ahaztu. Horregatik, merezi duten omenaldia egin zieten.

PARTE-HARTZAILE ASKO

12:30ean, Arrasate Musikaleko bandak abesti alaiak jo zituen ekitaldiari hasiera emateko. Segidan, eskualdeko hiru bertsolarik hiruna bertso bota zituzten. Eurek esan moduan, argi dago gerra amaitu arren zauriak ez direla itxi. Bertsolariek omenaldien izenak eta jasandako injus-

tiziak aipatu zituzten euren bertsoetan eta batek baino gehiagok ezin izan zion malkoari eutsi. Ondoren, lore eskaintza egin zieten Debagoieneko udaletako ordezkariak biktimen senideei. Jarraian, bandakoek *Eusko Gudariak* doinua jotzen zuten bitartean, Ikurrin-dantza egin zuen Arrasateko Arrostaiz dantza taldeak eta aureskua dantzatu zieten loreak jaso zituztenei.

Garai gogor haiek bizi izan zituztenek asko eskertu zieten antolatzaileei egindako guztia eta plaza berean dauden oroitarriari eskaini zizkieten jasotako lore sortak. Eskaintzaren ostean, oholtza gainean faxismoaren bidegabekeriak gogor salatu zituzten. Oroitzapena zor diegula gerrako biktimei, urte askoan ukatua izan den oroitzapena, gar-

bi utzi zuten. Gainera, emakumeen papera goraiatu zuten. Izan ere, emakumeek ere izugarri sufritu zuten frankisten errepresioa eta haien ahalegina gorai-

Faxismoaren bidegabekeriak gogor salatu zituzten hangoek

“Guztion laguntza da beharrezkoa, gure historia idazten jarraitu nahi izanez gero”


patzekoa dela adierazi zuten. Amaiera aldera, Goikobalu abesbatzak kantatu zuen eta bukatzeko, Juan Ramon Garai Intxorta 1937ko kideak hitz batzuk esan zituen. Zaila dela errepresioa jasan duten guztien berri izatea eta herritarren laguntza ezinbestekoa dela aitortu zuen antolatzaileak.

BAZKARIA ETA ERAKUSKETA
Ekitaldia egin eta gero bazkaria egin zuten Monterrongo karpan. Aurten lehenengo aldia izan arren, 255 lagun batu ziren.

Omenaldiaren barruan erakusketa ibiltaria ere ipini dute Monterron kultura etxean. Hilaren 15era arte egongo da zabalik, egunero, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Liburua eta DVDa salgai egongo dira han.

OMENALDIA GERRAKO BIKTIMEI

• EKITALDI UGARI EGIN ZITUZTEN AZKEN OMENALDIAN



MUSIKA, GURA BESTE. Omenaldi handian ezin zen musika falta. Arrasate Musikaleko banda eta orkestrak doinu gozoak egin zituzten eta Ainhoa Agirreazaldegia, Andere Arriolabengoa eta Jokin Labaien bertsolariak hiruna bertso bota zituzten oholza gainean. Gainera, Arrasateko Goikobalu abesbatzak *Hegoak ebaki banizkio* eta beste kantu batzuekin alaitu zuen domekako omenaldi sentikorra.



DANTZARIAK. Arrasateko Arrostitz dantza taldeak ere hartu zuen parte azken omenaldi horretan. Arrasate Musikaleko bandak jo zuen *Eusko Gudariak* kantuaren doinuarekin Ikurrin-dantza egin zuten oholza ondoan. Txalo mordoa jaso zituzten eta horren ostean, eta Arrasateko txistularien laguntzarekin, bikote batek aureskua dantzatu zuten omendutako senideei.



LORE ESKAINTZA. Negar malko artean jaso zituzten lore sortak senideek Debagoieneko udaletako ordezkarien eskutik. Dantza batzuen ostean, Laubide plazan dauden oroitarriek eskaini zieten sortak. Han, gerrako biktimen izenak ageri dira harritan. Senideen eskaintzaren ondoren, oroitarri haiek lorez josita gelditu ziren eta batek baino gehiagok familiako argazkia ateratzeko aprobetxatu zuten.



BAZKARIA MONTEIRONEN. Aurten omenaldi berezia izanik, bazkaria egitea ere pentsatu zuten antolakuntzako kideek. Eta hala egin zuten. Hasiera batean Iturripeko pilotalekuan egin behar bazen ere, eguraldia aprobetxatuz Monterron parkeko karpan egin zen bazkaria. 255 pertsona inguru izan ziren han eta gustura bazkaldu zutelara adierazi zuten. Bero handia egiten bazuen ere, merezi izan zuen.



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
Erosten jakin

Azoka datutan

2.100

Ardo botila kopuru hori ekarri zuten Arrasatera parte hartu zuten 25 upelategiek. Bakoitzak 12 botilako hiru kutxa ardo ondu eta lau kutxa urteko ardo ekarri zituen. Gehienak, errioxarrak.

29

Horixe izan zen Idiazabalgo Gazta lehiaketan parte hartu zuen gaztagile kopurua. Epaimahaia, berriz, 12 lagunek osatu zuten: gaztagile, artzain, aurpegi ezagun eta udal ordezkariak, tartean.

1.500

Ardoa dastatzeko pack-a ere jarri zuten salgai. Lau euroren truke ardoa edateko kopa -Arrasateko armariarekin- eta upelategien gida-liburua zituen, besteak beste.

1.000

Mila bat pack saldu zituzten zapatuan. Aukera aprobetxatu ez eta halako bat eskuratzeko gogoarekin geratu zenak Mondra Futbol Taldearekin harremanetan jarri baino ez du.

15

Gurasoak lasai ibil zitezen neska-mutikoak entretenituta izateko modua ere pentsatu zuten antolatzaileek. Azokaren hiru guneeetan mahai-futbolak jarri zituzten, 15 bat guztira.

DASTATZEA | HERRITARREK POZIK HARTU ZUTEN EKIMENA

Ekitaldia finkatzeko lehen urratsa pozgarria izan da

Jende ugari ibili zen goiz zein arratsaldean eta antolatzaileak eta upelategiak pozik joan ziren etxera

Zapatukoa ikusita litekeena da datorren urtean jarraipena izatea Ardo eta Gazta Eguna

Monika Belastegi

Ardoa gozoa da eta gazta berdin. Orduan, zer hobe Ardo eta Gazta Eguna antolatu eta biak dastatzeko aukera izatea baino?

Halaxe uste izan zuten Arrasaten Udalak, Kajoi tabernak eta Mondra Futbol Taldeak, bederen, eta zapaturako I. Ardo eta Gazta Eguna antolatu zuten. Laguntza ugari ere izan zuten antolaketan -Victor Monet ardo banatzailea eta Monte eta Okoretegi tabernak, besteak beste- eta baita hainbat babesle ere.

Errioxara joan barik Arrasate upelategi bihurtu zuten zapatuan eta herritarrek harre-
ra ona egin zioten ekimenari. Hiru gunetan banatu zituzten ardo zein gazta postuak -25 eta 24 hurrenez hurren- Seber Altube plazan, Abaroa aurrean eta herriko plazan. Hala, El Ciegotxo Etxabetik, Rioja Vegara eta handik Garcia Olano upelategi-

ra joan zitekeen urrats gutxi batzuk eginda, eta, bidean, Idiazabalen edo Berastegin geldialditxo egin gazta jateko.

Gaztari dagokionez, jan eta erosteaz gain, Idiazabalgo Gazta lehiaketa ere egin zuten. Orain arte Santamasetan egin izan dute lehiaketa hori, baina antolatzaileek data aurreratzea erabaki dute, hala, ardoarekin lotu eta eguna biribilagoa egiteko. Izan ere, antolatzaileen helburu nagusia izan da: "Herritarrek aisialdia herrian bertan eman dezaten ekitaldi borobila egitea, giroa piztuko duena, modu horretan Gasteiz edo Bilbora joateko beha-

Herriko giroa pizteko helburua zuen ekitaldiak, eta lortu egin zuten



Ardo, gazta, kirol, lege eta kazetaritza arloetako hamabi lagunek osatu zuten epaimahaia.

rrik izan ez dezaten. Bestalde, gaztarendako sasoi ona da hau; Santamasa baino hobea", azaldu digu Jose Luis Etxebarria ekimenaren bultzatzaileetako batek.

J. Aranburu elkarteak jaso zuten lehen saria gazta lehiaketan

eta bigarrena Berastegi elkarteak. Epaimahaiari dagokionez, hainbat arlotan jarduten duten hamabi lagunek osatu zuten. Han izan ziren, besteak beste: Jose Ramon Agiriano, Idiazabalgo Gazta izendapenaren dastatze batzor-

• EGUNAK HAINBAT IRUDI EMAN ZITUEN



MONDRA FUTBOL TALDEA. Lan handia egin zuten egunean barrena Mondra Futbol Taldeko kideek, baina ardoa dastatzeko tartetxoak ere izan zuten. Begira, bestela, zuzendaritzako kideek nola probatzen dituzten Bergarako Manso ardoak.



ARDOA. 25 upelategi egon ziren euren ardoa erakusten, gehienak errioxarrak. Besteak beste: Mendoza, Gailur, Gomez Segura, Solar de Ayala, Manso eta Rioja Vega. Otxia txakolinak ere jarri zuten postua. Txartelak jarri zituzten salgai dastatzea erosoago egiteko.



GAZTA. 29 gaztagile lehiatu ziren Idiazabalgo Gaztaren lehiaketan eta ez gaztak ez epaimahaia ere ez ziren halakolakoak izan. Herritarrak ere gustura ibili ziren gazta dastatzen. Zer hobe gazta zatia jan eta gero ardo tragoxka egitea baino?

ARDO ETA GAZTA EGUNA ARRASATEN



JOSETXO ARANTZABAL

Irudian gazta lehiaketako saridunekin ageri dira; baita Ignacio Lakuntza alkatearekin ere.

deko kidea; Presen Urkizu, *sumiller-a*; Joaquin Aldanondo, Aldanondo gazten gerentea; Txomin Perurena, ziklista ohia; Alberto Iñurategi mendizalea, Nekane San Miguel epailea eta Deiane Arrieta *Goitb*-ko kazetaria.

ANTOLATZAILEAK POZIK

Pozik daude antolatzaileak dastatzeak izandako harrerarekin: "Herriarrek ondo erantzun dute eta upelategietako arduradunak pozik joan dira. Iluntzean, 21:30 aldera, oraindik ere postua ezin kendu ibi-

li ziren". Datorren urtera begira, litekeena da berriz egitea, "leukoari irmo eutsi beharko dio Mondra Futbol taldeak", esan zigun Jose Luis Etxebarriak, "eurak izango dira-eta antolakuntzan pisu handien eroango dutenak".


• EGUNEKO PROTAGONISTAK



JOXE BIXENTE ETXABE |
ARTZAIN OMENDUA

"Aurtengoa oraindik artzain egingo dut"

84 urte ditu eta 71 daramatza artzain. Gaur egun 170 buruko artaldea dauka eta "aurtengoa oraindik artzain egingo dut, Degurixan", esan zigun. Pozik jaso zuen omenaldia familia-koen eta arrasatearren aurrean eta hunkitu ere egin zen.



JOSE LUIS ETXEBARRIA |
ANTOLAKETA TALDEA

"Ekitaldia finkatzeko lehen urratsa egin dugu"

"Ekitaldia herrian finkatzeko lehen urratsa egin dugu eta pozik gaude jasotako erantzunarekin", esan zigun Jose Luis-ek. "Upelategiak ere pozik joan dira, saldu ez ezik euren ardoak erakusteko aukera izan dutelako", gehitu zuen.



J. ARANBURU ELKARTEA |
GAZTA, 1. SARIA, IDIAZABAL

"Urtarrileko gazta ekarri dugu, suabea eta ona"

"Pozik jaso dut saria. Maiz etorzen gara Arrasatera: hirutanedo lehen saria eroan dugu eta beste hainbestetan aurreneko sariren bat. Gaur, urtarrileko gazta ekarri dugu, suabea, pixka bat ketua eta gatzagi natural erdiarekin egindakoa. Ona".



BERASTEGI ELKARTEA
GAZTA, 2. SARIA, BERASTEGI

"Gazta nahiko ketua ekarri dugu"


"Bigarren ez etorri gara, lehenengoz Santamasetan, eta orduan giro handiagoa zegoen. Lau hilabeteko gazta ekarri dugu, otsailaren 23koa. Suabea da, nahiko ketua eta gatzagi natural erdiarekin egindakoa".



AZOKAKO 'PACK'-A. Lau euroren truke ardo-dastatzaile pack-ak saldu zituzten. Poltsatxoaren barruan, azokako postuetako ardoa dastatzeko kopa -Arrasateko armariarekin- eta upelategien gaineko informazio liburuak zeuden. 1.500 jarri zituzten salgai. 1.000 bat saldu zituzten.



MAHAI-FUTBOLAK. Azokaren hiru gunetan jarri zituzten mahai-futbolak, guztira 15. Gurasoak ardoa eta gazta dastatzen ari ziren bitartean neska-mutikoak entretenituta egoteko modu egokia izan zen. Txanda ezin hartu ibili ziren guztiak.



OMENALDI HUNKIGARRIA. Joxe Bixente Etxabek 71 urte daramatza artzain. Bokazio horrekin jaio zela esan digu, eta bihotzean daramala. Arlo horretan egindako lan guztia eskertu nahi izan zioten antolatzaileek eta oroigarria jaso zuen Lakuntza alkatearen eskutik, plazan.

OSPAKIZUNA | ELGETAN ELKARTU ZIREN ZAPATUAN ATZEGIZALEAK

Urte oparoa izan da Atzegikoendako, eta hori ospatu zuten zapatuko topaketan

Zazpi urteko zikloa ixtearekin batera, lorpenen balantzea egin zuten zapatuko ekitaldian

Etorkizunari begira, familiendako atsedean eta zaintza zerbitzuak lantzen hasiko da elkarteak

Jon Berezibar

Zapatuan Elgetan egindako topaketarekin ziklo bat itxiko dute ibarreko adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkarteak. Urtero elkartu ohi dira ibarreko herri baten eta Elgetakoa zazpigarren urtea izan da. Hasi zirenetik aldaketa asko egon dira adimen urritasuna duten pertsonen ematen zaien zerbitzuetan eta iragan urteen balantzea egin zuten Atzegikoek. Kafe Antzokian eguerdi partean hitzordua eginda, ekitaldiaren ostean elkarrekin bazkaldu zuten Elgetan. Ehun bat lagun elkartu ziren, kide, senitarteko eta lagunak, besteak beste.

Atzegiko Donostiako ordezkariak eta ibarrekoek elkarteak aurtan egindako lanaren berri eman zuten. Jose Luis Zalduek, Atzegiko lehendakariak, Debagoiena "elkarlanaren eredu" moduan ipini zuen. Izan ere,

orain dela zazpi urte tailer bakarra zeukan Atzegik ibarrean eta gaur egun bi izatea - Arrasaten eta Bergaran - lorpenak jo zuen Jokin Antxiak, Debagoieneko arduradunak. Ibarreko zerbitzuetatik, aurtan abiatutako eguneko zentroa aipatu zuen Zalduek lehendakariak, Bergarako aisialdirako tailerrarekin batera. Bai Debagoieneko arduradunak zein

Zazpi urtean, zerbitzuen maila Donostiakoarekin alderatu dute

"Elkarlanaren eredutzat" hartu zuten lehendakariak ibarreko Atzegi

lehendakariak bat egin zuten orain familiei atsedean hartzen laguntzeko baliabideen ezinbestekotasunean.

ZAZPI URTEAN AURRERA

Lehenengo Atzegi eguna Eskoziatzen ospatu zuten orain dela zazpi urte. Eskualde mailako batzar hori urterik urte ibarreko herri baten egin izan da eta zapatuan Elgetari heldu zitzaion txanda. Horrela, ziklo bati amaiera eman gura izan zioten eta, bidez batez, atzera begiratu eta egindako lana gogora ekarri. "Aisialdia" aipatu zuen Antxiak etorkizunean lan egiteko esparru moduan. "Familia asko daude urteko egun guztiak egoten direnak adimen urriko senidearen ardurarekin eta haiendako egun batzuk libre izatea ere garrantzitsua da", azaldu zuen Debagoieneko arduradunak, "asteburu bat edo egun batzuk hartzeko". Egitasmoa oraindik proiektua da ibarrean, baina, Antxiak esandakoaren arabera, "poliki-poliki egituratzen joango den zerbitzua" izango da.

Lan handia baina ekitaldi atsegin ugari ere egin dituzte aurtan Atzegikoek eta horiek gogoratzeko argazkien bideo-muntaia erakutsi zuten ekitaldian, eta elkartearen ondo pasatzeko aukerak aprobetxatzen dituztela argi utzi zuten. Horren ostean, Aretxabaleako taldeak



Zapatu eguerdian egin zuten Elgetako elizan familia-argazkia ibarreko Atzegikoek.

neguan grabatu zuen *Bidaia baten ametsa* film laburra bota zuten, protagonista eta egileak bertan zirela. Lan horrek, gainera, Atzegiko film laburren lehiaketan hirugarren saria eskuratu zuen.

Behin ekitaldia amaituta, frontoira joan ziren Atzegikoak, han egin zuten eta bazkaria. Animatek, gainera, festarekin jarraitzeko aukera izan zuten bazkalostean egin zuten dantzaldiarekin.

• EGUERDIKO EKITALDIAREKIN EMAN ZIOTEN HASIERA EGUNARI



OHOREZKO AURRESKUA. Atzegiko partaideek ere ekitaldian kolaboratu zuten. Jonek, argazkian ikusi bezala, ekitaldia ireki zuen ohorezko aurreskuarekin eta Aretxabaleako taldekoek neguan grabatu zuten film laburra aurkeztu zuten. Horrez gain, aurtengo kanpaina aurkeztu zuten: *Gauza bai, ez edozertarako* izenekoa. Gipuzkoako eta ibarreko arduradunek ere hartu zuten parte ekitaldian.



ELGETAKO DANTZARI TXIKIAK. Elgetarrek ere behar bezalako harrera egin zuten Atzegikoei. Hitzordua eguerdian egina zeukaten herriko plazan eta han batu ziren elkarteak. Heldu bezain laster herriko trikitilariak Espaloiraino lagundu zieten eta ekitaldian bertan dantzari txikiak saioa egin zuten. Pausoekin beti ez asmatu arren, ederto moldatu ziren neska-mutikoak oholtza gainean.

ATZEGI EGUNA ELGETAN



JON BEREZIBAR

• AURTEN EGINDAKOEN BERRI EMAN ZUTEN



JOKIN ANTIXIA | ARETXABALETA
"Zazpi urteotako balantzea eginez gero, asko aurreratu da ibarrean, zerbitzuak Donostian aurki daitezkeen parera ipini arte. Aisialdian eta familien atsedenean egin behar da lan orain."



IÑAKI | ARETXABALETA
"Bazkaria eta geroko dantzaldia urtero egiten dugu. Trikitilariak ere etorri dira giroa animatzera eta ziur ederto pasatuko dugula bazkarian". Elgetara egun pasa etorri ziren Iñaki eta familia."



ALEX ETA PABLO | ARETXABALETA
Film labur bat egin eta Atzegiko txapelketa baten hirugarren saria irabazi zuen Aretxabaletako taldeak. "Behin baino gehiagotan ikusi dugu gure burua pantailetan eta ez digu lotsarik ematen". *Bidaia baten ametsa* da filmaren izenburua eta zapatuan Elgetako Espaloian erakutsi zuten, elkartekoek ere ikus zezaten.

JUAN LUIS ZALDUA | ATZEGIKO LEHENDAKARIA

"Familiek atsedeen har dezaten zerbitzuak ditugu"

J. B.

Gipuzkoako Atzegiko lehendakaria da Juan Luis Zaldua beasaindarra. Gaur egun familiek atsedeen hartzeko zerbitzuak lantzen dabilta.

Atzegi jarduera handiko elkartea da hemen; probintzia osoan gertatzen da berdin?

Eskualde bakoitzak dauka bere taldea, eta, neurri baten edo beste baten, guztietan dago mugimendua. Elgetan egindako moduko eguna talde guztiek ospatzen dute urtero. Orain dela gutxi Eibarren, Beasainen eta Irunen izan gara. Badago mugimendua.

Zein izaten da horrelako topaketen helburua?

Elkarrekin egonda indarrak batzea lortzen da, eta horixe litzateke bilera horiek egiteko

asmo nagusia. Argi dagoena da batuta eta elkarrekin lan egin da lortzen ditugula gauzak, eta batzar horietan, urteko balantzea egiteaz gain, helburu berriak finkatzen ditugu.

Ze asmo daukazue aurrera begira?


Asmoa beti bera da: daukaguna edo lortutakoa hobetzen joatea. Egia da gauza asko daukagula, baina ez lan txikia egin da. Hori izanda ere, hobetuz egin beharra dago aurrera. Aukera eta bide asko daude oraindik. Une honetan badago gai bat lantzen gabiltzana eta da

"Gure helburua beti bera da: daukagunarekin hobetzen joatea"

familiak eta senideek atsedeen hartu ahal izatea da. Horretan gabiltza orain lanean eta hortik joango dira etorkizunean eskainiko ditugun zerbitzuak.

Zer ekarriko du horrek?

Kontua da familiak aukera izatea adimen urritasuna duen pertsona nonbait uzteko, atsedeen hartu edo oporretan joateko. Senideendako hori benetan garrantzitsua dela iruditzen zaigu eta baita adimen urritasuna duenaren bizi kalitaterako ere. Horrela, atsedeen hartzeko, asteburu baten kanpora joateko edo oporrak hartu ahal izateko aukera izan dezakete senideek. Horretarako deialdia egin dugu, senideek jakin dezaten, eta dagoeneko 57 familiak eman dute izena zerrendetan, Gipuzkoa osoan. Horrenbestez, ematen du horri dagokionez eskari edo behar bat badagoela, eta horri erantzuten ahaleginduko gara Atzegitik.



J. B.



JOSETXO ARANTZABAL

Gaur egun 12 urtera arteko neska-mutikoak daude Angiozarko eskola txikian.

Angiozarko eskola txikiko gurasoek ez dute Hezkuntza Sailaren erabakia beteko

Atzo Igeldon egindako jaian "irizpide ekonomikoak albo batera laga eta esfortzua egin dezala" eskatu zioten administrazioari

Monika Belastegi

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Kontseilaritzak egubakoitzean jakinarazi zion Angiozarko eskola txikiko guraso batzordeari eskola ez dutela itxiko. Baina gurasoek ez daude konforme Kontseilaritzaren erabakiarekin: "Eskolako bi nagusienak Bergarara jaitsi behar ditugula azaldu digute bidalitako faxean eta

horrek esan nahi du Lehen Hezkuntza -12 urtera arte- izatetik Haur Hezkuntza izatera pasatuko garela datorren ikasturtean", azaldu digu Ainhoa Larrañaga guraso elkarteko kideak. Gainera, erabaki horren atzean "eskola hiltzen laga eta azkenean ixteko" asmoa dagoela uste dute. Hori horrela, administrazioaren erabakia errespetatu bai baina beteko ez dutela aurreratu du Larra-

ñagak, eta, ondorioz, umeak Bergarara jaitsi ez eta datorren ikasturtean Angiozarren matrikulatzen saiatuko direla.

AHALEGINA ESKATU ZIOTEN

Atzo Igeldon izan ziren Angiozarkoak eta Igeldoko eskola txikiko arduradunek berba egitera gonbidatu zituzten jaiaren irekiera ekitaldian. Ainhoa Larrañagak hartu zuen hitza eta administrazioari eskatu zion -haren ordezkari Patxi Olabarria zegoen han- "irizpide ekonomikoak albo batera laga eta ahalegin daitzela Angiozarko eskolaren etorkizuna bermatzen".

20 urteotan Gipuzkoako EAren bat egin dutenak omendu zituzten

300 bat kide batu ziren zapatu goizean Arantzazuko Gandiaga Topagunean, EA alderdiak egindako topaketa berezian

Goreti Elortza

EAKo Gipuzkoako lagunak 11:30ak aldera batu ziren Arantzazun ospakizuna hasteko prest. Adin guztietako jendea gerturatu zen ospakizunera.

Joxe Mari Gabiriak jardun zuen aurkezle lanetan eta berak esan bezala, omenaldi xumea egin nahi izan zieten alderdiarekin lanean jardun duten guztiei (zinegotzi, afiliatu, laguntzaile...) ekitaldi horrekin.

Hasteko, Edurne Albisu zegamarrak orain 20 urteko, alderdia sortu zeneko, aldarrikapenak irakurri zituen. Segidan, Antton Irizar Idiazabalgo alkatea deitu zuen oholtzara Gabiriak. Alkate beteranoak (1987a ezker) umorez erantzun zien aurkezleak egindako galderei. Ondoren, Elena Legarra

Orioko zinegotziak egin zuen berba. Eta ekitaldiari haize berriak emanik, bi aktorek umore saioa egin zuten. Bikoteak barre ugari eragin zituen. Horren ostean, besteak beste, Mikel Areitza Gipuzkoako alkate gazteena (Segura) eta Jokin Zubia azken afiliatua (Usurbil) ere igo ziren hitz batzuk esatera.

ESKER ONA ETA HITZALDIA

Amaitzeko, Urretxu-Zumarragako talde batek musika gozoa egin zuen eta Iñaki Galdos Gipuzkoako EAKo buruak hitzaldia egin zuen. Hark ere ez zuen umore faltarik izan bere hitzetan. Oñatiarrak esker ona adierazi zien han batutako guztiei, eta 14:00etan Sindika jate-txean egingo zuten bazkarirako gonbita egin.



JOSETXO ARANTZABAL

Orain dela 20 urteko aldarrikapenak irakurri zituen Edurne Albisuk.

• ESKORIATZAKO LUIS EZEIZA ESKOLAREN JAIA

GURASOEN EGINDAKO LANA ESKERTU GURADUTE ESKOLAKOEN

Eskoriatzako Luis Ezeiza herri eskolak ikasturte bukaerako jaia egin zuen zapatuan. Ume zein nagusiengan pentsatutako egitaraua egiten dute urtero, eta aurrean ere halaxe egin dute. Umeek buruhandiak eta margo lehiaketa izan zituzten goizean, eta gero bazkaria. Gurasoek geroago bazkaldu zuten, seme-alabak puzgarriekin entretenituta zeuden bitartean. Egunari bukaera emateko, berriz, dantzaldia egin zuten.

Luis Ezeizako guraso elkar-teak lan handia egiten du jai hori antolatzen, eta horrexegatik esker-rak eman nahi dizkiete eskolako arduradunek.



JOSETXO ARANTZABAL

• BERGARAKO FISC GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEA



JOSETXO ARANTZABAL

IKASTURTEKO AZKENEKO POSTUA JARRI ZUTEN

Bergarako Mariaren Lagundia ikastolak eskolaren jaia ospatzen zuela aprobetxatuta, postua jarri zuen FISC erakundeak. Ikasturteko azkena izan zen eta egindako salmentekin pozik azaldu dira arduradunak. Arrasateko Harreman dendako bitxi eta jakiak zein eurenak saldu zituzten, Mobokoli proiektuarentzat dirua batzeko.

ELKARTASUN EGUNA | ESKUBIDEAK BERMATZEKO ESKATZEKO MANIFESTAZIOAN 1.200 LAGUN INGURU BATU ZIREN

Konponbiderako, presoek eskubideak aldarrikatu zituzten Arrasaten

Portaloira Topaguneak gertatutako Elkartasun Eguneko ekitaldi nagusiak erantzun zabal eta jendetsua izan zuen zapatuan, antolatzaileek eskatu bezala

Jon Berezibar

Euskal presoek eskubideak errespetatzeko beharra plazaratu eta kontzientziazioan eragiteko, jaialdia antolatu zuen zapatuko Arrasateko Portaloira Topaguneak. Presoen eskubideen alde diharduen taldearen helburu nagusia arratsaldeko manifestazioak erantzun zabal lortzea zen, eta, hala, 1.200 bat lagunek egin zuten bat presoek aldeko aldarrikapenekin eta haien eskubideen defentsarekin, Portaloira Topagunearen arabera.

Espetxeetan dauden ia 700 euskal herritarrak berriz gogora ekarri, gatazkaren konponbiderako ezinbestekotzat jo zuten presoek eskubideak errespetatzea, Monterron parkean egindako ekitaldian. Aurretik, 1.200 lagun inguruk manifestazioa egin zuten.

PRESOEN ESKUBIDEAK ERRESPETATZEA

Manifestazioaren ostean Monterronen egindako ekitaldian, Ibaetako Foroak kaleratutako dokumentuaren oinarriak aldarrikatu zituzten antolatzaileek. Horren harian, herriko kolektibo, kultur talde eta banakoen atxikipenak irakurri zituzten, Portaloira Topaguneak egindako deiaren erantzun zabalaren erakusle, hain zuzen ere.

Horrela, aipatu dokumentuan eskatu bezala, presoek tratu duinerako, osasunerako, komunikazio, hizkuntza, hezkuntza, amatasun eta aitatasun eta askatasun eskubideak bermatzea eskatu zuten. Hain zuzen ere, Arrasaten Jon Agirre-larri gaixorik eta 25 urte espetxean eta Iñaki Gaztañaga-martxoan kalean beharko luke presoek egoera ekarri zuten gogora, ber-



Kontzientziazioan eragitea izan zen zapatuko manifestazioaren nahietako bat.

tako zein Euskal Herriko presoekin batera. Era berean, Arrasateko senideek omenaldia jaso zuten, jendearen txalo zaparradarekin batera. Ekitaldia amai-

tu zuten euskal presoak etxera ekartzeko deiarekin bat egiteko eskaerarekin eta aldarrikapen-tan modu aktiboan parte hartzeko gonbitarekin. Hala, *Eusko*

Gudariak abestuta eta ehunka lagun zutik zeudela bukatu zen zapatuan Elkartasun Eguneko aldarrikapen ekitaldi nagusia izan zena.



Mercedes-Benz

Goiko Leniz SL

Debagoieneko Mercedes Benz zerbitzu ofiziala

Laguntzailea: **MOVICAM**

VITO AUKERA ZABALENA SALTZEKO ETA EROSTEKO



**Zuk eta zure Vitoak abentura behar duzue
Gu izango gara zuen gidariak
Etor zaitezte!**

Alokairuak	Diseinua	Boutiquea
Finantzazioa	Prestakuntzak	Osagarriak
Bidaia-gunea	Altzariak	Pertsonalizatu

Vito-gunea

**Orain zure Mercedes
eros dezakezu!**

70 modelo salgai!

Demo eta ia berriak stockean!

C klasea - A klasea - E klasea - Vito -Viano

VITO-TXARTELA

MOZTU ETA EKARRI
TAILERRERA!

Mantenimendua.....% **10**eko deskontua

Neumatikoak.....% **10**eko deskontua

Araba etorbidea z/g 10 pabilioia ARRASATE Tel.: 943 71 19 03



AMAGOA LASAGABASTER

Eguneko lau bat metro zulatzen dutela azaldu zuten: egunean 24 orduz eta astean zazpi egunez egiten dute lan.

Isuzkitzako tunela 2007ko lehen hiruhilekorako zulatuta

2008ko urtarrilaren 1etik aurrera zabalik egongo da autobide osoa: Eibartik Gasteizera ordu erdian joan ahalko da

M.B.

Gipuzkoa eta Araba lotuko dituen AP-1eko Isuzkitzako tunelaren lanak ikusten izan ziren Aldundiko ordezkariak barikuan. Euskal Herriko tunelik luzeena izango da eta foru ordezkarien esanetan, 2007ko lehen hiruhilabeterako zulatze lanak bukatu eta lotuko dituzte tunelaren bi aldeak. Autobide osoari dagokionez, 2008ko urtarrila-

ren 1etik aurrera martxan egongo dela aurreratu zuten, eta Eibar eta Gasteiz arteko bidea ordu erdi eskasean egin ahal izango dela.

ERREKORRAK GUREAN

Isuzkitzako tunelean 2.000 metro zulatu dituzte dagoeneko: 1.300 Arabako aldetik eta 700 Gipuzkoakotik. Guztira, 3.377 metro izango ditu: 2.077 Gipuzkoari dagozkio eta gainerako 1.300ak Arabari.

Hain justu, autobidearen Eskoriatza-Isuzkitza tartearen zailtasunak azpimarratu zituzten Gonzalez Txabarri diputatu nagusiak eta Nestor Aranak Bidegiko zuzendari orokorrak, barikuan. Tartea 10,8 kilometro ditu eta Euskal Herriko tunelik luzeena izateaz gain, zubibiderik altuena ere badu: Maringo zubibidea, 197 metroko altuerarekin. Tarte horren aurrekontuari dagokionez, 192 milioi euro da eta ia erdia Isuzkitzako tunelari dagokio.

Gaur egun 9.000 ibilgailu dabil egunero Eibar eta Arrasate lotzen dituen tartean. Bukatzean 25.000 ibiliko direla aurreikusi dute.

Dagoeneko 6.867 errenta mekanizatu egin dituzte Bergaran

Hilaren 17a da azken eguna errenta mekanizaturako txanda hartzeko; kanpaina hilaren 26an bukatuko da

M.B.

Duela 39 egun hasi zuen errenta aitortpen kanpaina Ogasunak, eta ordutik hona 6.867 aitortpen mekanizatu egin dituzte Bergarako bulegoan.

Iñaki Rica Ogasun zuzendariak emandako datuen arabera, egindako aitortpen horietatik 5.105 negatiboak izan dira; hala, 5.159.392 euro itzuli dizkie Foru Ogasunak ibarreko zergadunei. Ordaintzekoak, berriz, 1.762 izan dira, eta horietatik 1.314.125 euro jasoko ditu.

EKAINAREN 17A TXANDA HARTZEKO AZKEN EGUNA
Datorren zapatuan, hilak 17, bukatuko da, errenta meka-

nizatu egin nahi dutenen kasuan, txanda hartzeko eguna. Horrekin batera, Ricak gogorarazi nahi die autoliquidazioa etxean jaso baina onartu ez duten zergadunei, behartuta daudela errenta aitortzera beste edozein modalitate erabilita. Gogora ekarri du, baita ere, aurtengo kanpaina ekainaren 26an bukatuko dela.

AURREIKUSPENAK

Foru Ogasunak egindako aurreikuspenen arabera, 352.000 aitortpen egingo dira aurtengo kanpainan: 6.000 paperean, 15.000 disketean, 107.000 mekanizatu, 111.000 autoliquidazio onartuko dira, 100.000 aholkularik modu telematikoan egingo dituzte eta 13.000 Internet bidez.

Oraingoz bost milioi eurotik gora itzuliko dizkie Ogasunak gureko zergadunei



ARTXIBOA

Gipuzkoako bulegoetan 100 bat lagunek dihardute lanean.

• ERRETIRATUEN ASTEA OÑATIN



J.B.

OÑATIKO BI NAGUSIENEI OMENALDIA EGIN ZIETEN ATZO

Domekan omendu zituzten Pake Leku erretiratuen elkartekoek Rosario Kortabarria -97 urterekin- eta Tomas Lumbreras -89rekin-, Erretiratuen Asteko azken ekitaldi moduan. Meza entzun ostean jaso zuten omenaldia kiroldegian eta horren ostean 300 erretiratut egin zuten bazkaria. Ospakizunekin amaitzeko dantzaldia izan zuten, Oñatiko Txome akordeoi-jotzaile ezagunak girotuta.

Nafarroarekin eta Akitaniarekin elkarlana sendotzen ari da MU

Goreti Elortza

Unibertsitateen Arteko Batzordeak bukatu berri du datozen hiru urteetarako Plan Estrategikoaren diseinua. 1994an jaiotako organo instituzional hori hiru lurraldetako unibertsitateen arteko elkarlana bultzatzeko sortu zen eta Akitaniako bost unibertsitatek, Euskadiko hiruk (MU euren artean) eta Nafarroako bik osatzen dute. 2005a ezker Mondragon Unibertsitateko Joxe Mari Aizega da batzordeko zuzendaria.

AURRERA BEGIRA

Plan horrek sei helburu garrantzitsu ditu Euskadi, Nafarroa eta Akitaniako lurraldeetan mugaz bestaldeko unibertsitate espazioa sortzeko ekimenean.

Ikasle zein irakasleen mugimendua sustatzea, gradu eta graduatu ondoko eskaintzan zein doktoreen heziketan laguntza areagotzea, I+D+i handitzea eta unibertsitateak internacional bilakatzeko plataforma bultzatzea dira hurrengo urteetan bete nahi dituzten helburu batzuk.

Albiste izango da

ARRASATE | EGUBAKOITZERA ARTE

Iturbide egoitzakoak gaur hasiko dira Nagusien Astea ospatzen

Gaur, astelehena, hasiko dira Iturbide egoitzan Nagusien Astea ospatzeko ekitaldiak, 16:00etan, hain justu, nagusi eta familiekin egindako kafe-tertuliarekin. Bihar, San Juan jaietako danborradako entsegua egingo dute eta 17:30ean, Arrasate Musikaleko ikasleek emanaldia egingo dute. Etzi, Bilbora joango dira egun pasa. Eguenean, hilak 15, danborradarako entseatuko dute berriz eta 17:00etan, dantzaldia izango dute Gardokirekin. Aste-ari bukaera emateko, bolo txapelketa egingo dute barikuan, 10:00etan, eta 17:00etan, bingo berezia jokatuko dute.

DEBAGOIENA | DEBA GARAIA ELKARTEAK DEITU DU

Nekazaritzarako ideia eta proiektu berritzaileen sariketa deitu dute

Landa Garapenerako Elkartek landa eremuko identitate eta bizi kalitatearen alde lan egitea du helburu, eta horretarako, nekazaritza arloarekin zein landa garapenarekin zerikusia duten ekimenak suspertu eta garatzen ditu.

Horren haritik, ideia eta proiektu berritzaileen hirugarren sariketa deitu du Landa Garapenerako Elkartek. Parte hartzeko betebeharrak dira, besteak beste, proiektua Debagoiengan garatzeko modukoa izatea eta Debagoiengan gauzatu bakoa izatea. Proiektuon aurkezpen epea irailaren 23an bukatuko da. Informazio gehiagorako deitu Deba Garaia Elkartera, 943 76 25 47 telefono zenbakira.

ESKORIATZA | ZAPATURA BITARTEAN IZANGO DA

Baztertuen alde egingo dute gaurtik aurrera Aste Zapatistaren barruan

Gaur, astelehena, hasi eta zapatuta bitartean egingo dute Aste Zapatista. Txiapasekin Elkartasun Taldeak antolatu du jai herriko gazte batzarrarekin batera eta helburu bikoitza du: batetik, "Txiapasen eta orokorrean baztertuen alde egitea", eta, bestetik, "Eskoriatzako herritarrek batzea". Horretarako, ume, gazte eta helduendako moduko egitaraua antolatu dute: besteak beste, gaur, astelehena, El Salvadorko gerrako umeen gaineko *Voces inocentes* filma emango dute 22:00etan, Naira tabernan. Bihar, Rakek Imaize ipuinak kontatuko ditu 16:30ean, zaharren egoitzan eta Maya egutegiaren gaineko ikastaroa emango dute 20:15ean, kultura etxean. Eguaztenean uraren arazoaz berba egingo dute 19:00etan, kultura etxean. Zapatuan, berriz, egun osoko jai egingo dute.

ELGETA | HILAREN 14AN, 19:30EAN, LIBURUTEGIAN

Iturburuko sektorearen gainean berba egiteko hitzaldia deitu dute

Aralar taldeak Iturburuko planteamenduaz berba egiteko hitzaldia antolatu du. Hilaren 14an izango da, 19:30ean, liburutegian. Helburua da herritarrei azaltzea arau subsidiarioek jasotzen dutena Iturburuko sektorearen gainean eta horrekin batera herritarrei galdetzea zein iritzi duten.


Arau subsidiarioek gune horretarako aurreikusten duten proiektuen harira, besteak beste honako galderak planteatzen ditu Aralarrek: Elgetan etxebizitza gehiago behar dira? 90 etxebizitza berri eraikitzen badira zenbatek izan behar dute babestutakoak?...

BERGARA | AURRE-INSKRIPZIOA UZTAILAREN 7RA ARTE

Ikasturte berriko ekintzetarako izenematea zabalik du Jardunek

Datorren ikasturteko plangintza gertatzen ari da Jardun euskara elkarte, eta antolatutako egitasmoetan aurre-inskripzioa egiteko epea zabaldu du. Askotariko egitasmoak antolatu ditu: bertso eskola, trikiti eskola, eskolaz kanpoko euskara eskolak, etorkinendako eskolak eta Berriketan egitasmoa; horiek guztiak aste barruan izango dira. Asteburuei begira, berriz, Txapligu -9-11 urte bitartean- eta Txiskrilabi -12-16 urte- aisialdi programak dauzkate. Aurre-inskripzioa uztailaren 7an bukatuko da. Izena emateko edo informazio gehiagorako jo Jardunera (kultura etxea) edo 943 76 08 19 zenbakira deitu.

Hitzorduk



ARAMAIOKO UDA IKASTAROAN 1876-1914 GARAIA AZTERTUKO DUTE | Uztailaren 3an hasiko da ikastaroa, eta izenematea zabalik dago

Gertu daukate Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailak eta Aramaioko Udalak Aramaioko IV. Uda Ikastaroko egitaraua. *Euskal Herria, 1789-1848. Historia, hizkuntza, artea* da izenburua. Helburua da "Euskal Herriarendako hain erabakigarria izan zen garaia honen ikuspegi zabala eskaintzea", antola-

tzaileen esanetan. Gai horietaz berba egiteko, hamalau aditu etorriko dira Aramaiora.

Ikastaroa uztailaren 3an inauguratuko dute, eta hilaren 6ra arte iraungo du. Izenematea zabalik dago 902 19 96 47 telefonoan edo aramaio@hurbilkulturgaiak.com helbidean.

ANTZUOLA |

• Internetez erosten ikasteko aukera dago

Etiket Internetez erosten ikasteko tailerra emango dute hilaren 15ean, eguena, KZgunean, 18:00-20:00.

ARAMAIO |

• Argia kenduko dute etzi, eguaztena, goizez

Argindarra etengo du Iberdrolak etzi, eguaztena, 09:00etatik 12:00etara, goi tentsioko instalazioetan mantentze lanak egiteko.

• Interneteko banda

zabalaren gaineko berbaldea Euskaltelek Interneteko banda zabala ipiniko du herrian. Horren gaineko informazioa emango dute eguenean, hilak 15, udaletxean, 19:00etan.

• Emakumeen Topaketara joateko aukera dago

Emakumeen Topaketa izango da eguenean, hilak 15, Zigoitien. Bestek beste, *Emakumeekin elkarlanean* hitzaldia entzungo dute eta antzezlan bat ikusiko dute.

• Euskara ziberespazioan Internet ikastaroa

Ikastaro hori emango dute gaur, astelehena, KZgunean, 18:00-20:00.

• Umeen Euskararen Egunean parte hartzeko izenematea Umeen Euskararen Eguna ospatuko dute ekainaren 26an

Gopegin. Autobusa antolatu dute, eta ekainaren 16a baino lehen eman behar da izena.

ARRASATE |

• Gerrako fusilatuen eta salatarrien gaineko erakusketa

Hazia erein zenutenoi izeneko erakusketa antolatu du Debagoieneko fusilatuen senitarteko eta lagunen batzordeak, eta Monterronen dago ikusteko aukera ekainaren 15era arte, eguena. Lehenengo aldiz, salatarrien gaineko materiala erakusten da. Orduetgia: 18:00-20:00, egunero.

• San Juan jaietako Dragoi

Jana antolatzeke jendea San Juan jaietako Dragoi Jenerako laguntzaileak behar dituzte. Interesa dutenek 943 77 12 28 telefonora deitu behar dute.

BERGARA |

• 1968an jaiotakoek afaria egingo dute hilaren 17an

68an jaiotakoek afarian parte hartzeko, 10 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan *68an jaiotako* izeneko kontuan.

• Jardunen hainbat ekintzatarako aurre-matrikulazioa

Datorren ikasturterako ekintzak antolatzen hasia da Jardun, eta aurre-matrikulazio epea zabaldu dute uztailaren 7ra arte. Bertso eta trikiti eskolak, Txapligu eta Txiskrilabi taldeen ekintzak, Berriketan,

euskara ikastaroak... daude. Argibideak, 943 76 08 19 telefono zenbakian.

• Odola emateko aukera izango da etzi, eguaztena

Odol-ateratzeak egingo dituzte hilaren 14an, eguaztena, Seminarioko lokaletan, 18:30ean.

ESKORIATZA |

• Uraren arazoaren gaineko hitzaldia izango da

Uraren arazoa munduan delako hitzaldia egingo dute eguaztenean, hilak 14, kultura etxean, 19:00etan, Aste Zapatistaren egitarauaren barnean.

OÑATI |

• Laixan elkarteak batzar orokorra egingo du

Laixan euskara elkarteak 2006ko ohiko batzar orokorra egingo du gaur, astelehena, euren egoitzan (Bidebarrieta, 18), 19:00etan. Bukatu eta gero, luntxa egingo dute.

• Kontsumoaren gaineko erakusketa ibiltaria

Kontsumoaren inguruko erakusketa ekarri du Eusko Jaur-laritzak, eta hilaren 18ra arte dago kultura etxean. Kontsumitzaileen eskubide eta bete-beharren berri ematea da helburu nagusia, eta parte-hartzea bultzatzen duen erakusketa da. Bisita ordutegia hauxe da: egunero, 18:30etik 20:30era.

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 02
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• **Arrasateko parrokiako txukuntze lanak "azkenean"**
San Juan Bataiatzailearen elizako Kanpatorpeko atea egunotan konpontzen dabilta. Eta dagoeneko ordua zela kontatu digu irakurle batek. Haren esanetan, "txizaleku publikoa" bilakatu da parrokiako ate hori eta egurra oso kaltetuta ei zegoen. Konponketek gernua iragazteko sistema bat ipiniko dute eta irakurleak berak, hori jakinda, "oso egoki" moduan ikusi du berrikuntza, "usaina kendu eta atea babesten lagunduko" duelako. Lanek erritmo onean jarraitzen badute, San Juanetarako berriz ere kokatuko dute atea bere lekuan.

• **Oñatiko plazako aparkalekua "teorian" itxita**
Oñatiko irakurle bat plazako aparkalekuari ematen zaion erabileraz da kexu. Mundumira, eskola publikoaren jaia eta barrakak direla-eta Udalak aparkalekua hilabetez ixtea erabaki zuen. Irakurle horrek jakinarazi duenez, herritarrek debekuari kasu egin badiote ere, "udal langile askok han aparkatzen du" eta irakurle berak galdetzen du "ea debekuei herritar soilek bakarrik egin behar dioten kasu eta ez udaletxeko langileek".

• **Urkulura igotzeko zubian zulo handia**
Ibarreko errepideen egoera "eskasa" berriz ere hizpide da irakurleen kexetan. Oraingoan Urkulura igotzeko bidean saihesbide gaineratik igarotzen den zubian dagoen "zulotzarra" aipatzen du Aretxabaletako irakurle batek. Esandako zuloa aldats goran dago, zubiko bihurtunean, eta egiten duen maila aldaketa oso nabarmena da. "Deserosoa" izateaz gain, "arrisku-tsua ere izan" daitekeela dio irakurleak, "zuloa ekidin gura izanez gero maniobra galanta egin behar delako". Konpontzea komenigarria dela dio irakurleak.

Sarean harrapatuta

Posta elektronikoko mezuen eta SMSen gaineko zerga

Alain Lamassoure europarlamentariak proposatu zuen posta elektronikotik bidalitako mezuei eta SMS mezuei zerga jartzea, diru hori herrialde pobreak laguntzera bideratzeko; e-posta bakoitzeko 0,00001

zentimo eta SMS bakoitzeko 1,5 zentimo. Nazio Batuen Erakundeak atzera bota zuen proposamena, baina hautsak harrotu zituen Interneten. *Goiena.net*-en gaiaren inguruko eztabaida izan da asteon.

TELEFONIA ENPRESEI BOIKOTA EGIN

Honezkero ez dugu nahikoa ordaintzen ala? Enpresa handi horiek nahi dutena kobratzen dute zerbitzu hori emateagatik, eta hori kontatu gabe ordaintzen dugun diru horretatik zenbat den zerbitzuaren kostea eta zenbat den nahi dutelako kargatzen digutena. Poltsikoko telefonoen zerbitzuengatik zenbat kobratzen den eskandalua da. Eta nik diot: zergatik ez dugu aprobetxatzen boikota egiteko enpresa horiei? Behintzat, telefono enpresei.

Boy Cott / www.goiena.net

NORK KOBRAUKO LUKE? NORENA DA INTERNET?

Ez dut entzun albiste hori, baina nora joango litzateke zerga horren diru kopurua? Ni euskalduna izanda Japonian dagoen zerbitzari bat erabiltzen badut, nori eman behar diot diru hori? Zeinek eman behar du dirua, zerbitzua jartzen duenak ala erabili egiten duenak? Norena da Internet? Horrek ez dauka ez hanka ez buru...

Interpeig / www.goiena.net

GUZTIAGATIK KOBRAUKO BEHAR DIGUTE

Beste zerga bat? Arnasa hartzeagatik ere kobratzen hastea falta zaigu! (Hobe izango da isiltzea,

ea norbaitek serio hartu eta zerga berria asmatzen duen).

Falta zana / www.goiena.net

ZERBITZU KAXKARRA EMAN ETA ORDAINDU?


Nahikoa ordaintzen diegu zerbitzu kaxkar bat ematen duten enpresei. Nola egin behar dute posta elektronikotik bidalitako mezu bakoitza kontatzeko?

Imamon / www.goiena.net

EZ DU ZENTZURIK SMS ETA E-POSTEN ZERGAK

www.goiena.net

SMS eta e-posta mezuei zerga jartzea proposatu dute. Ondo iruditzen zaizu?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Nik ez diot zentzurik ikusten horri. SMSei ezin zaie zerga handiago jarri, lehen ere nahikoa diru ateratzen dute mezu bakoitzeko operadoreek. Operadoreei zerga jarri kontsumitzaileei prezioa igo barik? Hori egin badaitenke ondo.

E-posta mezuena, ordea, zentzu gabekoa da. Lehen ere nahikoa ordaintzen diegu enpresei Internetera konektatuta egoteagatik eta gehienetan ez da izaten esaten duten moduko zerbitzua, askoz txarragoa izaten da.

Lor / www.goiena.net

DIRU MORDOA ATERAKO DUTE ZERGEKIN

Ez genuen besterik behar, bestela ere gutxi ordaintzen dugu-eta. Egia esan, zerga horiek ipinita ze diru mordoa aterako duten!

Zerga gehixau / www.goiena.net

GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEI EMAN

Kontua da dirua egitea. Egunero munduan milioika SMS eta e-posta bidaltzen dira. Zerga bat jartzen bazaie horiei dirutza ikaragarria aterako dute. Nik ez daukat oso garbi ze helbururekin planteatu duten zerga hau. Bestalde, lortutako dirua Gobernuz Kanpoko Erakundeei bideratzea ez litzateke gaizki egongo.

Internet / www.goiena.net

Halaxe erantzun digute

Hilabete eta erdi daramagu ia euririk gabe eta lehortea dagoela diote. Arduratzeko modukoa da



PELLO ZABALA |
METEOROLOGOA

Lehorteari hiru hilabete euri gutxirekin egindakoan esaten zaio. Udaberrian belarretan nabariago da ura falta dela eta lurra egarri dela agerikoa da, naturak orain ur gehiago behar du-eta. Hilabete eta erdi darama euririk egin gabe eta gutxira ere ez da euri konturik ikusten.



JUAN JOSE ROJO |
UR PARTZUERGOA, GIPUZKOA

Ur horniketari dagokionez, euri faltak ez du luzarorako arazorik planteatzen. Uneotan %80tik gora dago Urkuluko urtegia bete-ta, eta aurreko urteetako beste-koa da. Urkuluko horniketazikloa urte erdikoa da eta hori ere bermatuta dago. Ur maila bikaina da Urkulukoa.



MARTA GARMENDIA |
MANKOMUNITATEA

Lehorte garaia izanda ere, argi dagoena da uraren kontsumoa ez dela txikitzen, eta horretan kontzientziarioa behar-beharrezkoa da. Mankomunitatetik jardunbide egokiak agertzeko gida kaleratu genuen, ohiturak aldatzeko. Hala ere, datuek diote gero eta gehiago kontsumitzen dela ura.



HARITZ GALDOS |
BASERRITARRA

Belarretan ibiltzen garenok lehortea dagoela argi ikusten dugu. Belarriari saso honetan hiru-lau ebakitze ematen badizkiogu, aurten pozik egongo gara batetik pasatuz gero. Egoera normalera itzultzeko euri dezente bota beharko du, berriz berdetzeko, ze hori-hori baitago dena.

Egunkarietako harribitziak

FERNANDO GRANDE-MARLASKA

Auztiegi Nazionalako izar berri gisa definitu zuten atzo *El País*-en. Ez omen da zalea, baina *El País*-ko elkarrizketa onartu zuen "Espainia tolerante, moderno eta baketsu" baten alde apustu egiten duela esateko, non lasai esan ahal izango baitu euskalduna eta espainola dela eta Gorkarekin ezkontuta dagoela.

'El País'
2006-06-11



GIDATZEKO BAIMENA... PUNTUKA GALDU


Uztailaren 1ean sartuko da indarrean Estatu osoan puntu bidezko agiria. European barrena dozena bat herrialdek dute. Gehienok oporrak hamabi punturekin hasiko ditugu, baina arau-urratzeak eginez gero, galtzen joango gara puntuok. Sei puntu kenduko dizkigute: baimendutako abiadura baino %50 azkarrago joanez gero, 0,50 mg/l-ko alkohol baino gehiagorekin gidatuz gero edo

alkoholemia kontrola egin nahi ez izategatik, besteak beste. Lau puntu kenduko dizkigute: errepidera sutea edo istripua eragin dezakeen zerbait botaz gero, eta stopa edo semaforoa errespetatu ezean, besteak beste. Hiru puntu kenduko dizkigute, besteak beste, gerrikoa ez jartzeagatik, eta bi puntu, baimendutako abiadura %21-30 bitartean gaintzeagatik.

'Gara'
2006-06-11



Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2006-VI-11

Egunkarietan irakurri dugu

'Noticias de Gipuzkoa'

HORI EZ DA BIKTIMEKIN BAT EGITEA

AVTren mobilizazioak ez dira biktimei elkartasuna adierazteko, PPri baizik. Haien presidente Alcaraz ere erabat identifikatzen da alderdi horrekin. Ezin dute modu horretan engainatzen jarraitu. PPko agintariak garrasika eta bandera eta konstituzio aurreko sinboloekin babestea biktimez aprobeztatzea da.

Editoriala
2006-06-11

'Berria'

OINAZEA HURBILAGO

Igandea da, hondartzan zaude zuren lagun eta senideekin. (...) Hegazkin gris tzarrek hondartza bonbardatu dute, hainbat lagun hil eta zaurituz. Titularrek, atzo: Israelek hondartza bat bonbardatu du Gazan, eta zapi zibil hil dira. Gure inplikazioak hurbiltzen dizkigu, ezerk hurbiltzekotan, albisteak, eta ez gertakarien kontakizun hutsak.

Anjel Lertxundi
2006-06-11

'El Mundo'

LURRAREN LEGEA EUSKADIN

Euskal politika *kulebroia* bada, Lurraren Legearena bakarrik aldera daiteke *Solamente María* mitikoarekin. Zirriborro, ideia eta kontraproposamen joan-etorriak azken bi legegintzaldiak hartu ditu, baina bere kompetentziak gehien aldarrikatzen dituen autonomia erkidegoak 25 urte daramatza lege bat ezin aurrera aterata.

Ganeko
2006-06-11


'Gara'

MILAKA LAGUN AHT-REN KONTRA

"Dei egiten dugu AHTren kontrako jarra hedatzeko. AHTren kontra dauden pertsona, gizarte mugimendu, sindikatu eta talde politiko guztiei egiten diegu dei, inplikazioa areagotzeko borroka honetan. Izan ere, hori da bide bakarra gure helburuak gauzatzeko. Gaur urrats garrantzitsua eman dugu".

Idoia Bastarrika
2006-06-11

Zorroztalea



Uda luze

Umeen oporrak oso luzeak baitira, guraso asko eta asko hasita dago beren seme-alaben udara planifikatzen: mekanografia, ingelesa, informatika... Etekina, etekina denborari... Etekina? Guraso horietako askok uda luze aspergarrietan hartu zuen (hartu zuenak) irakurtzeko ohitura, orduen luzeari aurrea hartzeko diziplina, neguan burutu ezin zituen abenturen inimiziazioa.

Anjel Lertxundi
'Berria' | 2006-06-10

ere berekin zekarren. Eduardo Galeanok ederki laburbiltzen du funtzionamendua: "Katiximak irakatsi zidan, ume nintzela, kome-nientziaz on egiten eta beldurrez gaitzik ez egiten. Jainkoak zigorrak eta sariak eskaintzen zizkidan, infernuaz egiten zidan mehatxu eta zeruaren promes; eta ni beldur nintzen eta sinetsi egiten nuen". Eta egintza ona zein ote zen abadeak erabakitzen zuen. Txintxo, esaneko, formal, betiberdin, langile amorratu: ona, etxerako, zerurako. Kritiko, jakingose, errebelde, barreaia, alfer sinpatiko: txarra, bazterrerako, infernurako.

Joan Brossak esaten zuen gauza inportanteak ikasi egiten direla, baina ezin direla erakutsi. Gauza garrantzitsu baina zehaztezin horiek bereganatzeko, haurrek ezinbesteko dute guraso, irakasle, begirale bariko tartea; helburu "praktikorik" gabea.

Gerardo Markuleta

Tempus fugit irreparabile esan ohi zuten Grezia eta Erromako klasi-koek, neurri handian gure gaurko kulturaren guraso zahar izan ziren filosofo eta poeta haiek. Gurera itzuli-ta: "Denborak erremediorik gabe egiten du ihes". Zerurik eta infer-nurik gabeko heriotza zuten buruan, eta ondorioa *carpe diem* ("aprobetxa ezazu eguna, unea") plazerzale halako bat izan ohi zen, larritasunik gabe bizitzako edertasunei kasu egin eta unean une-koarekin -ederraren iheskortasuna gogoratuz- gozatzeko aldarria.

Kristau kulturak -neurri ustez handiegian gure gaurko moralaren moldatzaile nagusia- ederki bereganatu zuen gerora klasikoan leloa, urak bere errotara ekarrita: "ez geroko utzi heriotzaren orduan salba zaitzakeen egintza ona". Baina kristautasunak kristaukeria

"Zerurik eta infernurik gabeko heriotza zuten buruan, eta ondorioa carpe diem plazerzale halako bat izan ohi zen"

"Haurrek ezinbesteko dute guraso, irakasle, begirale bariko tartea; helburu "praktikorik" gabea"

KIROLA

- Xabier Lijó bergararrak bosgarren bukatu du Hiru Handien proba | 17
- Ulma taldeko Xabier Arnaiz kadete mailako Gipuzkoako txapeldun | 18



Mikel Gonzalez
Sanse taldeko
jokalari
arrasatearrarekin
izan gara | 16

DEBAGOIENEKO NAGUSIEN XV. JAIA



Arrasateko Iturripe kiroldegian elkartu ziren ibarreko nagusiak.

JOSETXO ARANTZABAL

NAGUSIEN XV. JAIA | ITURRIPEN OSPATU ZEN

250 nagusi elkartu ziren Iturripeko kiroldegian

*Ibarreko herri guztietatik
joandako lagunak elkartu ziren
Debagoieneko nagusien jaian*

Arantzazu Ezkibel

Giro ezin hobean ospatu zuten Debagoieneko nagusiek XV. edadetuen jaia. Urtero bezala, ikasurteari amaiera emateko antolatutako jaian kirola egiteaz gain, lagun artean arratsaldea pasatzeko aukera polita izan zuten gure nagusiek.

ASKOTARIKO KIROLAK

Parte-hartzaileak arratsaldeko hiruretan elkartu ziren Iturripeko kiroldegian. Kantxa barruan badminton, dantzak, hockey, saskibaloia eta masajea izan zuten. Kanpoan, areto futboleko jokatzeko aurreikusita zegoen arren, egiten zuen beroa zela-eta bertan behera geratu

ziren partiduak. Frontoietan esku pilota, pala eta zesta puntan aritu ziren parte-hartzaileak.


LAGUNARTE BIKAINA

Iratxek, Arrasateko kirol teknikiari, esan zigunez, mota guztietako kirolean aritzen dira nagusiak: "Denetarik egiten dugu, baina beti nagusien ezauzgarrietara egokituta".

Iratxeren esanetan, "urtero-urtero, nagusien gimnasia taldeak izaten dira leialenak. Gusteru etortzen dira, asteroko egin behar bezala hartzen dute hona etortzea".

Baina kirola ez zen izan dena. Merienda egin eta oparitxo bana jaso zuten, eta jaia borobiltzeko dantzaldia izan zuten.

• PARTE-HARTZAILEAK GUSTURA JAIALDIAREKIN



JABIER | ARRASATE

"Astean hiru bider etortzen naiz Iturripera kirola egitera"

"Astean hiru aldiz etortzen naiz Iturripera kirola egitera. Denetik egiten dugu, monitoreek esaten digutena. Baina niri gehien badminton gustatzen zait. Saskibaloia baita ere, baina zaila da lehenengoan baloia saskian sartzea".



BONIFACIO | ARRASATE

"Dutxa hartu eta gero guztiz berrituta joaten naiz etxera"

"Futbola da gehien atsegin dudana, baina baita bizikletan ibiltzea, igeri egitea eta beste hainbat gauza ere. Egunero joaten naiz igerilekura; jende guztiari gomendatzen diot. Dutxa ostean, guztiz berrituta joaten naiz etxera".



ISABEL, EMILIA, ISABEL ETA ERMINAO | ESKORIATZA

"Kirolarekin bakarrik ez da argaltzen, baina arin egoteko balio digu. Gu astean hiru bider joaten gara kiroldegira eta oso ondo pasatzen dugu"

"Guk ere astean hiru egunetan egiten dugu kirola. Azken finean, lagunekin ondo pasatzeko modua da. Jende guztia animatu nahi dugu kirola egitera. Egia esateko, argaldu ez da argaltzen, baina arin egoteko aproposa da kirola egitea. Nagusien jaiak antolatzen dituztenetan beti etorri ohi gara. Lagun artean arratsaldea pasatzeko modu egokia da. Lehenengo kirola egiten dugu eta gero dantzaldia izaten da. Gehien atsegin dugun kirola badminton da, baina erraketak guztien artean banatu beharra dauzkagu".

DEBAGOIENENKO NAGUSIEN XV. JAIA

• KIROLA EGITEN TREBEAK DIRELA ERAKUTSI ZUTEN NAGUSIEK



SASKIBALOIA. Arratsaldean era guztietako kirolak egin zituzten. Iturripe kiroldegian saskibaloia, badmintona, trebezia jokoak eta aerobika egin zituzten. Kanpoaldeko frontoian pilotan aritu ziren, eta ibilaldia egitera atera ziren beste batzuk. Saskibaloia, gustuko duten arren, kirol zaila dela esan ziguten nagusiek.



MASAJEA. Horrenbeste kirol egin eta gero, masajea hartzeko aukera izan zuten Iturripe kiroldegira gerturatutakoek. Lurrean etzanda, baloi batekin bizkarrean masajeak eman zizkioten nagusiek elkarri. Hala, masajeak hartzeaz gain ematen ere ikasi zuten. Guztiak pozik geratu ziren, indarberrituta, kirol gehiago egiten hasteko.



OGITARTEKOA ETA FRUTA. Kirola egin ondoren merienda izan zuten nagusiek. Egiten zuen beroa eramangarri egiteko, nahi beste ur izan zuten. Gero ogitarteko bana jan zuten eta baita fruta eta esnekia ere. Bukaeran, denek oparitxo bat jaso zuten: txanoa. Datorren jaialdia noiz iritsiko gogoz geratu ziren parte-hartzaile guztiak.



DANTZALDIA. Debagoieneko nagusien XV. jaiari amaiera emateko, dantzaldia izan zuten nagusiek. Kiroldegiko harmailetan egin zuten merienda, eta gero, nagusiak kantxara jaitsi ziren dantza pixka bat egitera. Parte-hartzaileek adierazi zigutenez, dantza egitea omen da gehien gustatzen zaien jardueretako bat.



PETRA, PILAR ETA AMPARO | OÑATI

“Gehien dantza egitea gustatzen zaigu, aerobika eta horrelakoak. Oso osasungarria da kirola”

“Denetarik egiten dugu, baina gehien dantza egitea gustatzen zaigu, aerobika eta horrelakoak. Saskibaloian ere gustura jokatzen dugu; hala ere, zaila egiten zaigu baloia saskian sartzea. Astean hiru aldiz joaten gara Oñatiko kiroldegira. Oso osasungarria da, eta horregatik mundu guztia animatzen dugu kirola egitera”.



LUCIA, EULALI ETA PAKITA | ARRASATE ETA BERGARA

“Nagusi guztiei gomendatzen diegu kirola egitea; ondo pasatzeko modu aparta da”

“Aerobika egitea asko gustatzen zaigu. Astean bi aldiz joaten gara kiroldegira eta gorputzarentzat oso ona dela nabaritzen da. Nagusi guztiei gomendatzen diet kirola egitea. Lagun artean ondo pasatzeko modu aparta da kirola egitea. Horrelako jaietan, beste herrietako jendearekin egoteko aukera ere izaten dugu”.



CAMILA ETA MARI ANGELES | ARRASATE

“Lagun talde ona osatu dugu gimnasia egitera etortzen garen emakume guztiok”

“Astean hiru aldiz egiten dugu kirola eta oso ondo sentitzen gara. Orokorrean kirol guztiak gustatzen zaizkigu, baina badmintona da gogokoena. Saskibaloian ere aritzen gara, baina zaila da ondo jokatzea eta baloia saskian sartzea. Lagun talde ona osatu dugu gimnasia egitera etortzen garen guztiok”.

Iruditán



ODILO VAZQUEZ

Karatea. Zapatuan 90 parte-hartzaile aritu ziren Aretxabaletan jokatu zen elkarte arteko IV. karate txapelketan. UDA (Aretxabaleta), Giartzu (Bergara) eta Saioa (Arrasate) elkarteetako kirolariak kata eta kumite modalitateetan aritu ziren nor baino nor gehiago. Hala, 16 urteko nesketan, Maite Garitano bergarra izan zen irabazlea. Mutiletan, berriz, Arrasateko Xabier Lasagabaster nagusitu zen. Kumite modalitatean, Arrasateko Saioa elkarteiko Omar Revueltak irabazi zuen.



JOSETXO ARANTZABAL

Pilota. Oñatiko plazako txapelketa abian da. Egubakoitzean, gazte mailako partiduan, Beasaingo Arratibelek eta Mendiak 22-11 irabazi zieten Bergarako Berraondori eta Etxezarretari. Kadete mailako norgehiagoka, berriz, bertan behera geratu zen.



ARANTZAZU EZKIBEL

Ipintzako futbol txapelketa. Eguenean Ipintza futbol txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zen. La Juvek 1-2 galdu zuen Santana Riverren aurka, Angiolak 3-0 irabazi zion FO-FO-FORi eta A Ze Flaxak 3-0 irabazi zion Gorriones taldeari.



XABIER URIZELAI

Zaldibarko areto futbol txapelketa. Arrasateko Betrayerrekin (irudian) irabazi du Zaldibarko areto futbol txapelketa, finalean Iriztu taldeari 4-2 nagusituta. Hirugarren eta laugarren postuetarako partiduan, Dribling 4-2 nagusitu zitzaion Lasagabasterri.



JOSETXO ARANTZABAL

DYAk o anbulantzian eraman zuten biktima ospitalera; bestalde, Ertzaintzak ikerketa zabaldu zuen.

GORLAKO XVI. AUTO IGOERA | PROBA BERTAN BEHERA GERATU ZEN

Ikusle bat hil zen Gorlan, autoak jota

Ermuko 50 urteko gizonzkoa bidea gurutzatzen ari zen probako Ford Sierra Cosworth autoak jo zuenean

Mireia Bikuña

Gorlako Igoera zehaztutako orduan hasi zen, arratsaldeko lauretan. Ordu horretan entrenamenduko igoera egin zuten izena emanda zuten 62 pilotuek. Bostak eta laurdenetan hasi zuten lehena ekitaldia eta handik ordu laurdenera gertatu zen istripua.

Aitor Lazkanok gidatzen zuen 30 zenbakidun Ford Sierra Cosworth markako autoak, ikusle bat harrapatu zuen. Gorlako igoerak dituen 28 bihurtuetatik 26.ean gertatu zen. Berehala hurbildu ziren bertara DYako anbulantziak. Istripuaren lekuan bertan biktima suspertzen ahalegindu ziren, baina zituen zauri larriak ikusita Debagoieneko ospitalera eraman zuten, eta bertan zendu zen.

MENDITIK ZETORREN

Ertzaintzaren iturrien arabera, hildakoa 50 urteko gizonzkoa da J.C.G.O. inizialduna eta Ermuko bizilaguna.

Menditik bueltan zetorrela, Gorlako igoera ikusten zeuden zaleengana hurreratu zen. Haiekin hitz egiten egon zen. "Bat-batean errepidera sartu zen. Bertan zeuden ikusleak oihuka hasi ziren errepidetik aldentzeko esanez. Une hartan autoa agertu zen;

bere kamerarekin grabatutako irudiak ere. Gaueko 9ak aldera egin zuten alde handik.

IKUSLEEN EGONEZA

Hori guztia gertatzen zen bitartean, ibilbidean zehar zeuden ikusleen artean egonezina nagusitu zen, DYako anbulantzia eta ertzainak gora eta behera ikusita. Gainera, istripuaren inguruko askotariko bertsioak entzun ziren bertan; errepidean zeuden antolaketa taldeko kideek ere ez zuten azalpen garbirik ematen. Azkenean, arratsaldeko 7ak laurden gutxi aldera, igoerako zuzendariak proba bertan behera uztea erabaki zuen.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Hala geratu zen autoa ikuslea harrapatu ondoren.

JUAN MARI ARANTZABAL | ANTOLATZAILEA

"Lege aldetik oso lasai gaude antolatzaileok"



IMANOL SORIANO

Mireia Bikuña

Zapatuko ezbeharraren aurrean, Bergara Racing taldeko Juan Mari Arantzabalekin hitz egin dugu.

Zer gertatu zen zapatuan?

Hildakoa menditik bueltan zetorren. Errepidera iritsi zenean igoera ikusten zeuden zaleekin elkartu zen. Bost minutu igaro ondoren errepidea gurutzatzen hasi zen. Ikusleen oihuekin errepidean gelditu geratu zen eta une hartan autoa agertu zen. Abiadura handiarekin zetorren. Pilotuak autoa galgatu zuen arren, kolpea ikaragarria izan zen. Hildakoa 50 bat metrora bota zuen.

Orain zer gertatuko da?

Zapatuan bertan, gauean bilera egin genuen eta Ertzaintzak egindako ikerketa ikusita nahiko lasai geratu ginen. Lege aldetik paper guztiak ordenan ditugu. Lekuko testigantzarekin eta, batez ere, ikusle batek grabatutako irudiekin garbi geratu da gizona izan zela errepidea gurutzatu zuena. Bergara Racingek ez du erantzukizunik; gu antolatzaileak gara. Bada, aseguruaren arteko negoziaketa egingo da. Batetik, pilotuaren asegurua dago; bestetik, antolatzaile taldeak egingo dugun istripu parte; eta azkenik, ertzainen ikerketa. Hildakoaren familiak, beraz, aseguru etxera joan beharko du. **Igoeran parte hartzen duten autoak seguruak dira?**

Antolatzen diren igoera guztietan autoak ikuskatu egiten

dira. Zapatu goizean auto guztiak ikuskatu ziren eta bi probatik kanpo geratu ziren. Pilotuen arropak eta kaskoak homologatuta dauden ere ikusten da.

Nola kontrolatu Gorlako moduko probak halakorik ez gertatzeko?

Oso nekeza da. Guk medio guztiak jartzen ditugu ikusleak arriskua dagoen lekuetatik kanpo egoteko. Baina gero bakoitzak izan behar du bere buruaren ardura. Eta askok ez dute arriskurik ikusten.

Gertakari horrek zein ondorio ekarriko dio Gorlako igoerari?

Zapatukoa kolpe gogorra izan da, baina datorren urtean igoera egingo dugula uste dut. Datozen egunotan bilera egin beharko dugu hausnarketa sakona egiteko. Bergara Racing taldeak Gorlako igoera zaletasunagatik antolatzen du. Hildako asko egon da auto probetan, baina probek jarraipena izan dute.

Igoera bertan behera geratu zen. Pilotuek zer esan zuten?

Zuzendariak proba suspenditzea erabaki zuenean, gidariek proban parte hartzeagatik ordaindutako dirua bueltatzea eskatu zuten. Azkenean, akordioa egin genuen: sarietan banatzeko gure dirua gidarien artean banatu genuen.

Hildakoaren familiarekin hitz egin duzue?

Momentuz ez. Datozen egunotan jarriko gara harremanetan haiekin. Baina doluminak adierazi dizkiegu ohar bidez.

"Ikusle batek hartutako irudiak jaso zituen Ertzaintzak, froga modura"

"Ikusleek ez dute arriskurik ikusten; haiek kontrolatzea oso nekeza da"

"Lehen ikerketek erakusten dute hildakoak errepidean gurutzatu zuela"

"Hildakoaren familiarekin hitz egingo dugu, doluminak emateko"

OÑATI | GIPUZKOAKO KADETE MAILAKO TXAPELKETA

Ulma taldeko Xabier Arnaiz kadete mailako Gipuzkoako txapeldun da

86 txirrindularik eman zuten izena Oñatiko proban; 54 iritsi ziren Olakuako helmugara

Arantzazu Ezkibel

Xabier Arnaiz Oñatiarra da Gipuzkoako kadete mailako txapeldun berria. Zapatuan, Oñatin jokaturako proban, esprintean nagusitu zen Ulma taldeko txirrindularia.

48 KILOMETROKO PROBA

Oñatiko Olakua auzoan izan zuen hasiera lasterketak. Guztira, zortzi taldetako 86 txirrindularik hartu zuten parte Gipuzkoako Txapelketan. Horien artean, ibarrek 18 txirrindulari.

Hala, Olakua auzotik atera eta Bergara aldera egin zuten txirrindulariek; han, buelta eman eta berriro ere Oñatira joan ziren. Lehenengo zati horretan, trope la nahiko batuta joan zen. Ihesaldi saio bat egon zen, baina Ulma taldeak bertan behera utzi zuen.

Horren ondoren, Oñatitik Legazpi aldera jo zuten txirrindulariek. Udana izan zen lasterketak izan zuen zati gogorra. Hala, Oñati eta Legazpi batzen dituen mendatean, bost txirrindulariz osaturako talde txiki batek ihes egin zuen.

ESPRINTEAN ARNAIZ NAGUSI Ihes egindako taldetxoan Xabier Arnaiz oñatiarra zegoen. Azke-



Gipuzkoako Txapelketako irabazleek Olakuako plazatxoan jaso zituzten sariak.

nean, hura izan zen azkarrena Olakuako helmugan. Esprintean nagusitu zen Arnaiz, 1:16:35eko denbora eginda.

Bigarren eta hirugarren sailkatuak Alain Iglesias eta Aritz Agirre izan ziren, denbora berean. Kadete mailako lehenengo urteko Gipuzkoako txapeldun saria Mikel Elortzak eskuratu zuen. Elortza ere esprintean sartu zen Olakuako helmugan.


Taldeko sailkapenean, Garmendia Tejasek eraman zuen saria. Ordiziako taldeak 3:51:25 egin zuen. Aipatzekoa da txapeldunaren taldea, Ulma, taldeko sailkapenean azkena geratu zela.

Zapatukoarekin Xabierrek lau lasterketa irabazi ditu; guztiak esprintean, gainera.

• NOLAKOA IZAN DA LASTERKETA?



XABIER ARNAIZ | ULMA
“Nire helburua lasterketa irabaztea izan da hasieratik. Nire burua ondo ikusi dut eta azken esprinterera gogor iritsi naiz. Hala, txapelketa lortu dut”.



ALAIN IGLESIAS | ECOTERMI
“Lasterketa gogorra izan da. Hasieratik nahiko kontrolatua egon da tropela, eta Udanan egin dugu ihes talde txiki batek. Azkenean, bigarren geratu naiz”.



ARITZ AGIRRE | GARMENDIA TE
“Hasierako kilometroetan nahiko kontrolatua egon da lasterketa. Ihesaldi saioa egin da, baina Ulma taldeak ondo eutsi du. Esprintean erabaki da dena”.

Emaitzak

LEHENENGOAK

1. Xabier Arnaiz Igartua	(1:16:35)
2. Alain Iglesias Garcia	(1:16:35)
3. Aritz Agirre Ezeiza	(1:16:35)
4. Jon Urtizbera	(1:16:35)
5. Mikel Elorza Larrañaga	(1:16:35)
6. Eneko Garcia Oyarzabal	(1:16:42)
7. Ander Zubillaga Artano	(1:17:14)
8. Imanol Ugalde Ansa	(1:17:14)
9. Eder Gomez Castelar	(1:17:14)
10. Gorka Agirre Aranguren	(1:17:14)

TALDEKAKO SAILKAPENA

1. Garmendia Tejas	(3:51:25)
2. Andoaingo TE	(3:51:42)
3. G. Corrugados	(3:51:57)
4. Ecotermi	(3:52:54)
5. Belca	(3:57:21)
6. Luma	(3:57:39)
7. Allerru SCDR	(3:57:51)
8. Ulma	(3:58:49)

Uzarragako igoera

Mugurutzza izan zen azkarrena Antzuolan jokaturako Uzarragako igoeran, zapatuan

13 mutikok hartu zuten parte Antzuolako lasterketan

Arantzazu Ezkibel

Antzuolako txirrindulari challengeko bigarren lehiaketan Urtzi Mugurutzza izan zen irabazlea. 13 mutikok hartu zuten parte lasterketan; beste bi lasterketatatik kanpo geratu ziren, adinez txikiegiak izateagatik.

Tropel txikiak goizeko 11etan hartu zuen irteera Etxezuri etxearen aurretik. Uzarragako helmugara Urtzi iritsi zen lehenengo, 08:49ko denbora eginda. Bigarren Mikel Arregi (10:52) sartu zen eta hirugarren Mikel Asensio (11:35).

Parte-hartzaileak 8-12 urte bitarteko mutikoak izan ziren. Hala, adinaren arabera hiru taldetan sailkatu zituzten txirrindulariak. Nagusien taldean Mikel Asensio izan zen lehena, 10 urtekoen taldean Urtzi Mugurutzza eta txikien taldean, berriz, Mikel Arregi.

SAILKAPEN OROKORRA

Zapatukoa Antzuolako challengeko bigarren lehiaketa izan zen. Aurreko astean, Iralako erlojupeko igoeran ere Urtzi izan zen azkarrena, Jon Fernandez aurretik.

Hala, challengeko sailkapen orokorra honela dago: nagusien taldean Mikel Asensio da lehena, 10 urtekoen taldean Urtzi Mugurutzza eta txikien taldean Mikel Arregi eta Xabier Iparragirre berdindurik daude.

Ekainaren 17an challengeko hirugarren lehiaketa jokatu da, Ondarreko gymkana.



Uzarragako igoeran parte hartu zuten txirrindulariak etapa hasieran.

JOSETXO ARANTZABAL

PILOTA | ZORTZI BIKOTEK HARTU DUTE PARTE TXAPELKETAN

Iturbe eta Korta nagusi Debagoieneko txapelketan

Federatu gabeko pilotariak hartu dute parte Debagoieneko lagun arteko pilota txapelketan

Mireia Bikuña

Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan jokatu ziren zapatuan Debagoieneko lagun arteko pilota txapelketako finalak. Zapaturako zegoen iragarrita baita ere kontsolazio finala, baina ez zen jokatu, pilotari bat lesionatuta zegoelako.

Arrasateko Iturbe eta Korta eta Durangoko Egia anaiak lehia ziren finalean. Eta arrasatearrek irabazi zuten, 22-16.

NEKATUTA AMAITU ZUTEN

Partidu oso gogorra izan zen hasieratik amaiera arte. Arrasateko bikotea izan zen beti aurretik markagailuan. Bada, Iturbek eta Kortak jarri zuten partidua- ren erritmoa. Durangarrek, dena den, izan zuten partiduari buel-

ta emateko aukera, bi tantora hurbildu zirenean: 13-15. Baina azken txanpan arrasatearrek hobeto jokatu zuten. Tanto baten, gainera, Iturbek epaileek hartutako erabakiarekin ados ez zegoela esan zuen.

Partidu amaieran, beraz, Iraultza Iturbe eta Iñaki Korta nagusitu ziren. Norgehiagoka oso nekatuta amaitu zuten bi bikoteek.

LAGUN ARTEKO TXAPELKETA

Debagoieneko lagun arteko bi pilota txapelketa jokatu dira aldi berean: bat Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan eta bestea Zubillagako frontoian.

Aretxabaletan jokatu zen txapelketan pilotari izan baina gaur egun federatuta ez daudenek hartu dute parte. Guztira zortzi bikotek. Maila hartan jokatu dutenak erdi mailako pilotekin aritu dira.

Lehen fasea ligaxka modura jokatu zen sei asteburutan. Lau bikote onenak finalerdietarako sailkatu ziren eta irabazleak, noski, finalerako sailkatu ziren.

Zubillagako txapelketa pilota bigunekin jokatu da eta 26 bikote inguru aritu dira. Bada, Zubillagako txapelketako finalak ekain amaiera aldera jokatuko dira.



Finala jokatu zuten pilotariak sariak jaso zituzten amaieran: garaikurra eta erosketa bonuak.

MIREIA BIKUÑA

• HORRELA IKUSI DUTE FINALA PROTAGONISTEK



IRAULTZA ETA IÑAKI | ARRASATE

Pozik zegoen Arrasateko bikotea partidu amaieran. "Oso pozik gaude lortutako garaipenarekin. Baina oso nekatuta ere bai. Bero egiten zuen eta izerdia gogotik bota dugu", adierazi ziguten partidu amaieran. Garaikurra eta dirua jaso zuten sari gisa.



ARKAITZ ETA IKER | DURANGO

Argazkiko bi pilotariak izan dira txapelketan zehar jokatu dutenak. Baina finalean Arkaitzen orde z bere lehengusu Andonik jokatu zuen. "Hatz batean min hartu dut eta pena izan da finaleratik kanpo geratzea. Eta partidua galtzea ere bai".

Frontenisa

Patxi eta Kepak irabazi zuten Debagoieneko I. frontenis txapelketa

Arantzazu Ezkibel

Debagoieneko lagun arteko I. txapelketako finala jokatu zen atzo Angiozarren, eta irabazlea Patxi-Kepa bikotea izan zen.

Guztira, 15 bikote hartu dute parte txapelketan, guztiak debagoiendarrak. Apirilean hasi zen txapelketa eta atzo izan zuen amaiera Angiozarko pilotalekuan, hamaiketako eta guzti.

FINALA ETA HIRUGARREN ETA LAUGARREN POSTUAK

Finalerdietako partiduak joan den astean jokatu ziren. Hain zuzen ere, lehenengo partiduan Patxi eta Kepa 30-25 irabazi zieten Ederri eta Igorri. Beste partiduan, berriz, Raulek eta Eduk 30-23 irabazi zieten Mike- li eta Unairi.



Irabazleak eta antolatzaileak familia argazkia egin zuten.

Finala, beraz, Patxi-Kepa eta Edu-Raulen artean jokatu zen. Norgehiagoka polita izan zen, lehia handikoa.

Azkenean, Patxi eta Kepa 35-26 nagusitu ziren eta lagun arteko I. frontenis txapelketako sari nagusia eskuratu zuten.

AE

• DEBARROKO PILOTA TXAPELKETA



JOSETXO ARANTZABAL

DEBARROKO TXAPELKETAKO AZKEN JARDUNALDIA

Aretxabaletako Iturrigorri frontoian jokatu zen egubakoitzean Debarroko pilota txapelketako azken jardunaldia. Kadete eta senior mailako hiru partidu jokatu ziren. Lehenengo lehia Aretxabaletako Akizu-Gardoki bikoteak irabazi zuen, 22-20. Kadete mailako bigarren partiduan Perez de Labeaga-Uribarren aretxabaletarrek irabazi zuten: 22-5. Eta senior mailan Errasti Anaiek 22-17 menderatu zuten Lasagabaster-Altzola bikotea. Debarroko txapelketako finalerdiak datozen bi asteburuetan jokatuko dira eta finala, uztailearen 9an.

Mendi ibilaldia

• HIRU HAUNDIAK

Debagoiendarren artean Xabier Lijo nagusitu zen

Mila bat lagunek eman zuten izena probarako. Joxe Luis Albizu ordiziarra izan zen Otxandiora heltzen lehena

Arantzazu Ezkibel

Ohikoa den moduan, Hiru Haundiak mendi ibilaldiak jende ugari bildu zuen. Egubakoitzean Zalduondotik atera eta zapatuan Otxandiora lehena iristen Joxe Luis Albizu izan zen, 12:00:02ko denbora eginda. Aurten, lehenengo aldiz, gutxieneko denborak kendu egin dituzte, eta, hori dela eta, mendi ibilaldiak lasterketa itxura hartu du.

Debagoieneko jende askok hartu zuen parte mendi ibilaldian. Denetan azkarrena Bergarako Xabier Lijo izan zen. Guztira, 13:39:12ko denbora egin zuen bergararrak. Xabier bosgarren postuan sartu zen eta Ibon Kortabarria oñatiarra, berriz, bederatzigarren, 14:13:58ko denborarekin.

EURI TANTAK URBIAN

Egubakoitzean euria egingo ote zuen beldurrarekin atera ziren parte-hartzaileak Aizkorrira bidean. Gau iluna izan zuten, ilargi argi bakoa, eta, hori dela eta, haitz artean erorketa asko egon ziren. Urbiara iristean,



Otxandioko plazan amaitu zen 100 kilometroko mendi ibilaldia.

euri tanta batzuk izan zituzten mendizaleek.

Gatzaga gainean, Venta Frian, jana eta edana egon zen parte-hartzaile guztientzat. Han,

Anbotorako bidea hartu zuten. Azkenik Gorbea igo zuten; esan digutenez, tarte hura izan zen denetan gogorrena, orduak pasa ahala berotu egin zuen-eta.

• HORRELA IKUSI DUTE IBILALDIA PARTE-HARTZAILEEK



IKER ETA JON | OÑATI

“Ez dugu arazorik izan, ondo joan da dena. Hasieran lasai atera gara eta gero denbora hobetu dugu”

Ez da lehenengo aldia Jonek Hiru Haundiak mendi ibilaldia egiten duena; aurten hirugarrenez egin du. “Hasieratik lasai atera naiz, Aizkorrira 200. iritsi naiz, gutxi gorabehera, eta handik aurrera postuak aurreratzen joan naiz. Azkenean 13. sartu naiz, eta pozik nago egindakoarekin”, esan digu. Iker ere pozik azaldu zitzaizgun ibilaldiarekin: “Ondo iritsi naiz Otxandioko helmugara”.



XABIER LIJO | BERGARA

“Gorbeatik helmugarako bidean bero handia egin du”

“Uste bezala, 13 ordu egin ditut. Goitik beherako zatiak korrika egin ditut. Gogorrena azken txanpa egin zait, Gorbean beherakoa. Zuhaitz artean, bero handia egin zuten zati hartan”.

Arrantza txapelketa



JOSETXO ARANTZABAL

Helduen mailakoak San Pedro eta Olate artean aritu ziren.

Jose Romero eta Iker Novoa nagusi Oñatiko arrantza txapelketan

Mireia Bikuña

52 arrantzalek parte hartu zuten, atzo, Pago Uso elkarteak eta Alzu arrantza dendak antolatutako txapelketan. Helduen mailan Jose Romero izan zen onena. Bi amuarrain harrapatu zituen, haietako bat 31 zentimetrokoa. Guztira 600 gramo pisatu zuten. Pisuak balio izan zion Ander

Amilleta, Javier Vera eta Josu Lizarralde mendean hartzeko.

40 GAZTE

Gazte mailan 40 arrantzalek parte hartu zuten. Iker Novoa izan zen irabazlea, bi amuarrain harrapatuta. Bigarren tokian, 6 urte dituen Gorka Kortabarria sailkatu zen. Txapelketako parte-hartzaileek gazteena izan zen.

Eskoriatza kirol elkarteak



AE

Sarituek pozik jaso zuten oroigarria argazkian ikus daitelkeen moduan.

Eskoriatzako elkarteak urteko kirolari onenak saritu zituen

Arantzazu Ezkibel

Bazkari ederra eginda eman zion amaiera aurtengo denboraldiari Eskoriatzako elkarteak.

ESKORIATZAR ONENAK

Bazkariaren ostean, aurtengo kirolari onenen sariak banatu zituzten. Aretu futboleko, Borja Gartzia, Emilio Gomez, Imanol

Ramos, Aitor Romero eta Aratz Kortazarrek eraman zuten saria. Saskibaloian, Yaiza Exposito, Ana Salaberria, Maite Carreras, Maite Usabiaga eta Marta Calderon izan ziren saridunak. Pilotan sailean, Alex Oiartzabal eta Xabi Agiriano. Eskoriatzako kirolari onenaren saria Arrasateko Ford Mugarri taldeko Kepa Isasmendientzat izan zen.

Mikel Gonzalez futbol jokalaria arrasatearrak bi urte daramatza Sansen jokatzeko. Zapatuan denboraldiko partidu garrantzitsuena jokatu zuten donostiarrek.

Eta 2-1 nagusitu ziren arren, garaipen mingarria izan zen; izan ere, joaneko partiduan 1-0 galdu zuten Las Palmasen. Beraz, Kanarietako taldeak egingo du

aurrera igoera faseko txapelketan. Sansek, beste urte batez, bigarren B mailan jarraitu beharko du. Mikelekin izan gara futbolaz eta Realean duen etorkizunaz hitz egiten.

MIKEL GONZALEZ | SANSEKO JOKALARIA

"Amorrua ematen du horrela galtzeak; bidegabekoa izan da"

Arantzazu Ezkibel

Pena izan da azkenean, modu horretan, txapelketatik kanpo geratzea.

Bai, amorru handia ematen du horrela galtzeak. Partidua gogorra izan da. Las Palmas taldeak ez du aparteko ezer egin, baina azkeneko minutuan, isolatuta jokaldi batean gola egitea lortu dute. Horrelakoa da futbola. Inori ez zaio galtzea gustatzen, baina horrela galtzea bidegabekoa izan da.

Guk ilusio handia jarri dugu igoera txapelketan, baina pena izana da ezin lortu izana.

Zer-nolako denboraldia izan da aurtengoa zuretzat?

Ez dut uste inork pentsatuko zuenik hain ondo ibiliko ginenik. Denboraldia aurrera joan ahala ikusi dugu lehenengo postuetan egoteko aukera genuela; beraz, denboraldi erdian postua mantendu eta *play-off*-ean sartzeko helburua jarri genuen.

Pertsonalki ere denboraldi ona izan dela esan behar dut. Hasierako partiduak talde nagusiarekin jokatu nituen, Realeko hainbat jokalaria lesionatuta zeuden-eta. Behin hasierako partidu horiek jokatu, berriro ere Sanserekin jokatu nuen. Sansen oso gustura egon naiz. Hilabete lesionatuta eman nuen, baina orain gogo handiagoarekin hartu dut txapelketa.

Datorren urteari begira, berriz, lehenengo mailara salto egin gura zenuke?

Datozen egunotan klubak esango digu ze asmo dagoen datorren urterako, baina oraingoz ez digute ezer esan. Guk ez dugu gauza horietan pentsatzen hasi behar; gurea ondo egin, eta beste guztia etorri egingo da.

Realak harrobiarekin duen politikari buruz ze iritzia duzu?

Nik uste dut, orokorrean, Realak etxeko jokalaria gazteak ondo zaintzen dituela. Aurreko urteetan atzeritar asko ekarri zituz-

ten, baina aurtengo harrobiko jokalaria asko igo dira lehenengo mailara. Azkenaldian etxeko gazte askok eman dute Realera jauzia eta horietako askok talde nagusian jokatzeko jarraitzen dute. Nire ustez, Realak ondo zaintzen du harrobia.

Realak egin duen denboraldia ikusi eta zuek egin duzuen ikusita, etorkizuna esku onean dagoela pentsatuko du askok. Zer gertatu zaio aurtengo Realari?

Ez dakit zer esan. Azken finean, denboraldi osoan zehar gauza askok dute eragina. Gainera, ezin daiteke alderatu gure liga eta lehenengo mailako liga.

Datorren urteari begira zer egin beharko lukete Athleticen eta Realak estutasunik ez izateko?


Talde bakoitza mundu bat da eta elkarte bakoitzaren barruan gauza askok dute eragina. Egia esan, ez dakit zer den talde bakoitzak hobetu behar duena. Talde barruan lanean ari direnek jakin beharko dute zer den datorren urteari begira egin beharko dutena.

Egia da, aurtengo, talde euskaldunak, Osasuna izan ezik, larri ibili garena. Kanpotik begiratuta erraza da iritzia ematea; jendeak erraz hitz egiten du, baina gauzak konplexuagoak dira.

Hasi berri den Mundiala ikusteko asmorik baduzu?

"Datozen egunotan esango digu klubak datorren urteari begira ze asmo dagoen"

"Azkenaldian lehenengo mailara jauzia eman duten gazteek jokatzeko jarraitzen dute"



Denboraldi hasierako partiduak Realarekin jokatu zituen Mikel Gonzalezek.

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Bai, ahal ditudan partidu guztiak ikusteko asmoa daukat. Askok gustatzen zait Mundiala ikustea, lau urtean behin izaten da eta giro polita egoten da.

Bestalde, betikoa ez den beste talderen batek irabaztea gura nuke.

Gaur egun dauden jokalarietatik, nor gura izango zenuke taldekidetako?

Niri beti Ingalaterrako futbola gustatu izan zait asko. Gerrard, Lampard eta Terry, adibidez, arraza handiko jokalariek iruditzen zaizkit. Indarra

dute eta kluba sentitzen duten jokalariek dira.

Defentsa zaren aldetik, nor markatuko zenuke gustura?

Berdin zait, ez daukat aurrean izan gurako nukeen jokalaria jakinik. Golik sartzen ez digun bitartean, berdin du.

IRIARTE

Umeen
denda



Helduen
lentzeria

Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABAleta

UGARTE

ARozTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Edu Big Handsek entzuleengana hurbiltzen jakin zuen Espaloian egindako kontzertuan | 24
- Eguenean hasiko da Bergaran Helduendako Txotxongilo Mostraren zortzigarren ekitaldia | 27

Pirinioak eta Alpeak bizikletaz egindako bidaiaren kontakizuna Bergaran | 27

ELKARTASUN EGUNA

JAIALDIA | PORTAILORA TOPAGUNEAK ANTOLATU ZUEN

Musikak egin zuen euskal presoen eskubideen aldeko bozgorailu lana



Jendetza batu zen Arkada Social ikusteko.

JOSETXO ARANTZABAL

Goizean hasi eta ordu txikietara arte, ekintza eta kontzertuek harrera bikaina izan zuten zapatuan

Tabernetako emanaldiek giro aparta ipini zuten eta gaueko jaialdiak lehertu egin zuen Monterron parkea

Jon Berezibar

Musikaz josita, Elkartasun Eguneko jaialdiak Arrasateko erdialde osoa bere egin zuen, presoek eskubideen aldeko deia zabalteko. Hogeita bi musika talde, herriko 18 taberna, herriko koardrilak eta ikuskizun guztietara agertutako jendetza izan ziren mezu horren eroaleak zapatuko jaialdi erraldoian. Bero itogarririk ez zuen jendea apaldu eta herri kiroletatik hasi, arratsaldeko kontzertu sortatik pasatu eta gauean Monterron parkea lehertzeraino bete zuen jaialdiraino, Portaloira Topaguneak antolatutako Elkartasun Egunak erantzun ezin hobea izan zuen.

GOIZETIK GAUERA

Aldarrikapena kalera ateratzeko asmoarekin, herriko kaleetan goizean hasi ziren ekitaldiak. Gainera, txikienak ahaztu barik, Seber Altube plaza haurren jolasparke bihurtu eta puzgarriak, tailerrak eta ipuin kontalariak ibili ziren haiek entretenitzen. Aspertzeko asti barik ere ibili zirenak Ataundik etorritako talogileak izan ziren. Seber Altubeko gunean kokatu zituzten eta zeuden 30 graduak talotarako egokienak ez baziren ere, bazkalaurrean batek baino gehiagok egin ziren sabelean lekua.

Bitartean, Monterron parkea goizeko jaialdiko bigarren gunea izan zen. Herriko gazte eta koardilek herri kirol txapelketa izan zuten. Leku berean egin zuten ostean herri bazkaria gazteek.

Antolatzaileen arabera, 250 bat gazte ibili zen herri kiroletan eta geroko bazkarian.

KONTZERTUAK TABERNETAN

Arratsaldeko bostetan hasi ziren tabernetako emanaldi bereziak. Zer aukeratu ez zela egon, behintzat, ezin da esan: herriko hamazortzi tabernatan gustu guztietarako kontzertuak egon ziren arratsaldeko zazpiak arte.

Bostetan Sharon Stoner txantxikuak hasi ziren Taupa tabernan; handik gertu, Ekaitzen, Ti2no musikaria ibili zen arratsaldea berotzen eta Iturriotz tabernan Mahaster Riverrek egin zuen ikuskizuna. Aldameneko tabernan, Lorategin, Ibai San Jose arrasatearrak jo zuen. Gaztetxean doinu heavygoen zaleek zeukatzen hitzordu bikoitza: Bergarako Aby-Kem eta Arrasateko Denialekoekin. Tonu lasaia goan eta goxoago Jone anoetarra ibili zen Ederra tabernan eta beste bakarlarik batek, oraingoan Jim TNT arrasatearrak, Haizean jo zuen. Rock-and-roll zaleek, berriz, Jai Zale aldera jo behar izan zuten zapatuan, han jo baitzuen Sarris Rock & Roll Triok, Señor No-ko mitikoek osatua.

Ostantz tabernan Gorrionek jo zuen eta Kajoin, oster, Tunel 483 ondarrutarrek. Txantxikuek bigarren ordezkari bat izan zuten Gure Lekun, Los Chuloputas-ekin. Iratin, bitartean, Angerrekoei emanaldi berezia egin zuten, abestien moldaketa akustikoarekin, eta giro itzela egon zen taberna hartan ere. Bio-


Herriko 18 tabernatan aldi bereko kontzertuak egon ziren

Monterron parkea betetzea lortu zuten gaueko jaialdiko taldeek

ELKARTASUN EGUNA



Sarri Rock & Roll Triokoek Jai Zalen jo zuten.



Argamboys durangarrak Bionan.



Anti-nowhere League Monterraonen.



Angerrekoak ohikoan baino karibearrago Irati tabernan.

nan Argamboys durangarrek jardun zuten, Etxeraten Ihesbide elorriarrek eta Etxosten Never Surrender ibili zen jo eta ke. Bada, kontzertu sorta hori gauekoen aurrerapena besterik ez zen izan, Monterraonen punk jaialdi itzela egon zen-eta afalostean.

Eguraldiaren beldur ziren antolatzaileak gaueko kontzertuengatik. Horregatik, sarrera guztiak ez saltzea erabaki eta

txarra eginez gero gaztetxera aldatuko zuten kontzertua. Era berean, saldutako sarrerak berehala agortu ziren eta jakina zen zapatu gaueko kontzertuak sekulako harrera izango zuela. Arrasateko Des-Kontrol eta Arkada Social taldeek ederto eman zuten egurra, guztiz menderatuta zeuzkaten jarraitzaileen aurrean. Monterron parkea goraino beteta, eszenatoki

azpian arimarik ere ez zen kabitzen. Captain Nemoakoak ere fin ibili ziren eta, zer esanik ez, Anti-nowhere League ingelesei buruz. Aurrekoak baino urte dezente zaharrago, baina besteak bezain bortitz ibili ziren haiek ere Monterrongo oholtzaren gainean. Herri guztian entzun ahal izan zen kontzertuen oihartzuna, ez zuten-eta zarata txikia egin zapatuan.



Des-Kontrolkoak parkeko oholtzaren jaun eta jabe.

Jaialdiak musika propioa izan du, kolaborazioz jositako 'Piztu da dragoia' abestiarekin

Piztu da dragoia kantua grabatu dute herriko hainbat musikariek Elkartasun Egunari bultzada emateko. Joan den apirilean grabatu zuten Ines Osinaga (Gose), Arkaitz Biain (Anger), Oier Beitia (Des-Kontrol) eta RIP taldeko Julek. Hitzez Eneko Barberena idazlea eta Jokin Labaien bertsolaria arduratu dira. Horren harira, abestia jasozten duen singlea hainbat tabernatan dago salgai.

Antolatzaileak pozik egindako lanarekin eta jaialdiak izandako erantzunarengatik

Datuek bakarrik hitz egin dezakete jaialdiak jasotako harreraz. Herriko 18 tabernak eta 20 musika taldek hartu dute parte.

Herri bazkarian ere makinatxo bat lagun batu zen; 250, antolatzaileen kalkuluen arabera. Monterrongo kontzertuek ere ehunka lagun batu zituzten eta egun osoan zehar izandako giroa itzela izan zen.

Portaloira Topagunea urtarrila ezkerro ibili da taldeak osatu eta jaialdia prestatzen

Portaloira Topaguneak hartu zuen bere gain egunaren antolaketa. Talde oso aktiboa da presoen aldeko Arrasateko hori. Kontzientziarioa helburu, urtean zehar ere maki-na bat ekitaldi antolatu izan dute: bigarren eskuko arropen azoka, maindire kanpaina, Behobia-Donostia lasterketan presoen izenekin parte hartzea. Aldarrikapenak egiteko modu asko daudela erakutsi dute.



Summer

06

Maalako Errabala 13
ARRASATE
943 79 92 76

UNITED COLORS
OF BENETTON.



BLUESA | EDU 'BIG HANDS'

Gitarraren birtuosoak ikusleak txunditu zituen bere eskuen iaiotasunarekin

Blues, jazz edota funky zaleek gozatzeko moduko kontzertua izan zen egubakoitzekoa

Asteleheneko Goienkaria

Luze eta gustura ibili zen Naco Goñiren dizipulua egubakoitzean Elgetan. Bluesaren sustrai beltzetatik edanda, jazz eta funkya ostera bikainak ere egin zituen Madrilgo gitarristak, bere abileziarekin Espaloian batutako 40 ikusleak zur eta lur lagata. Jende askorekin jo izan du Eduk eta igartzen zaio inor baino hobeto moldatzen dela ikusleekin. Horren froga ezin hobea oholtza utzi eta jende artean jo zuen tartea izan zen. Jarraitzaileek ger-

tu-gertutik ikusi ahal izan zuten *Big Hands*-en abilezia, txundituta uzterainokoa.

GIRO EDERREAN

Musikariak ere oso gustura ibili ziren eta luze jotzeko aukera izan zuten. Ordu eta erdi egin

zuten oholtza gainean. Hala, nerbio eta iaiotasun handiko artista dela erakutsi zuen Eduk eta bluesa abiapuntu moduan erabili ere, txalogarriak izan ziren funkya egindako gerturatze bikainak. Hala ere, gusturen blues giroetan nabari zitaion madrildarrari, zalantzarik gabe.

Ikusleei dagokienez, jende ugari ere kanpotik etorri zen. Lehendik ere hemendik ibiliak dira Edu eta bandakoak eta Madrildik etorrita, lehenengoko kontzertua izan da Elgetakoa. Espaloiko arduradunei amaitutakoan aitortu zenez, eurak ere benetan gustura ibili ziren jotzen eta horrek asko lagundu zuen sortutako giro berezi horretan. Edurena Espainiako bluesaren izenik aipagarrienetakoa da, gaztea izan arren, eta zaleen artean dagoneko erreferente ere bilakatu da, hain zuzen ere.

Espainiako bluesean ospea hartu du Edu 'Big Hands'-ek, gaztea izan arren

Ikusleak eta musikariak gustura, giro bikaina sortu zen Espaloian egubakoitzean

Alberto Saezek bigarren zuzendu zuen Arrasate Musikaleko Orkestra

Zapatuan Arrasateko parrokian egindako kontzerturako barroko eta klasiko garaietako piezak aukeratu zituzten musikariek

Asteleheneko Goienkaria

Alberto Saez zuzendari zutela kontzertua egin zuten zapatuan Arrasate Musikaleko Orkestrakoek parrokian. Barroko eta klasiko garaietako hainbat pieza aukeratu zituzten emanaldirako: Mozart eta Pergoletti tarteko. Alberto Saezek Arrasateko orkestrarekin lan egiten duen bigarren aldia da. Lehena zarzuelan egin zuen eta han sortutako harremanetik, musikariei bigarren saiakera bat egitea otu zitzaion; oraingo honetan, baina, pieza klasikoekin. Eta mota horretako musikan ere ederto moldatzen direla erakutsi zuten zuzendariak eta musikariek.

Elizak eskaintzen duen sonortate bikaina aprobetxatuta,

Flauta magikoa eta halako pieza aski ezagunak bizi-bizi entzun ahal izan ziren. Horren lekuko izan ziren parrokiara gerturatu eta eserleku ilarak ia amaieraraino bete zituztenak.

ORKESTRA ETA AHOTSAK

Hogei lagunek osatutako ganberako orkestra aurkeztu zuten Arrasate Musikalekoek. Instrumentalak bakarrik hiru obra jo zituzten eta gainontzekoak kantuko ikasleekin egin zituzten, bikoteekin, hirukoteekin eta boskoteekin. Guztira zortzi kantu ikaslek abestu zuten zapatuko emanaldian. Mozarten opera eza-guna izan zen emanaldiko txalotuenetarikoa, hain zuzen ere, ganberako orkestra batekin jotzeko oso egokia da-eta.



Orkestrak aurrez zarzuelan jo zuen Alberto Saezekin.

J.B.



ARGAZKILARITZA | BERGARA HIRIA LEHIAKETAKO SARI EMATEA


Egubakoitzean banatu zituzten Arostegi aretoan Bergara Hiria Argazki Lehiaketako sariak. Pol-Pol argazki taldeak antolatutako lehiaketako irabazleak han izan ziren saria jasotzen. Zuri-beltzeko argazkietan, Zarauzko Iñaki Kaperotxipik jaso zuen lehen saria *Sombas* lanarekin eta koloretan, berriz, Oreretako Joaquin Verak, *Azpeitia* argazkiarekin. Herriko partaideei dagokienez, Benito Canterok bigarren saria eskuratu zuen zuri-beltzean eta Jose Antonio Untzurrunzagahirugarrena, koloretan | A.G.



LITERATURA | KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAREN SARI EMATEA

Zapatuan banatu zituzten Bergaran Koldo Eleizalde literatuta lehiaketako sariak. 519 lan auzkeztu dituzte aurten hainbat mailatan: 424 ipiun; bertotan sei berso sorta; ipuin kontaketa edo antzerkiari dagokionez 17 eta, azkenik, komikietan, 72 lan jaso dituzte Sari emate ekitaldira pozik joan ziren irabazleak eta, ohi bezala, generoka banatu zituzten sariak eta, tartean, musika eta antzerki emanalditxoak egon ziren. Goiko argazkian irabazleak pozik udal ordezkarien eskutik jasotako sariarekin. | A.G.

Debagoieneko WEBGUNEAK



AHOLKULARITZAK

ESTRADOS
www.consultoria.estrados.com

ANTZINAKO ALTZARIAK

ZUMADIA
www.zumadia.com

AKADEMIAK

BASTIDA
www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK

BZ-SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas

MARRUBI
www.marrubi.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK

MARIA JESUS
www.mjargazki.com

AROTZTEGIAK

ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi

AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate

ASEGURUAK

BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak

WINTERTHUR
www.winterthur.es

AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA

AUTOS ARETXA S.L
www.autosaretxa.com

AUTOS RIBEGOLA –BMW-
www.autos-ribegola.com

GALLASTEGI MOTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi

AUTO-KONTZESIONARIOAK

4QUATTRO 4
www.goiena.net/blogak/4quattro4

BIDAIA AGENTZIAK

BARCELO
www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA

OSCAR VITORIA
www.goiena.net/blogak/vitoria

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK

ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi

ELEKTRIZITATE MATERIALAK

SETALDE
www.setalde.com

ERAIKUNTZAK

CONSTRULAN
www.construlansl.com

ERROTULOAK

PANDO
www.goiena.net/blogak/pando

ESTETIKA ZENTROAK

ANGELA
www.angelaestetika.net

GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder

LILURA
www.lilura.com

MAIER
www.goiena.net/blogak/richimaier

GARBIKETAK

HEMEN
www.hemen-garbiketak.com

GIMNASIOAK

IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport

HAUR PARKEAK

OKIPARK S.L.
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETEK

URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIAK

CIM-OÑATI BAI & BY
www.cim-idiomas.com

HOTELAK

HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

ILE APAINDEGIAK

RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier

INFORMATIKA

DCA COMPANY
www.dcacompany.com

INGENIARI GEOLOGIKOAK

HARRILUR
www.harrilur.com

INMOBILIARIAK

ANBOTO
www.inmoarrasate.com

ARRIETA & SAN MIGUEL
www.arrietasanmiguel.com

KOROSTI
www.inmokorosti-com

UDALATX
www.goiena.net/blogak/udalatx

JANARIAK

GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu

JANTZI DENDAK

MARKIEGI
www.goiena.net/blogak/markiegi

UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK

BASTER ALDE
www.baster-alde.com

DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental

DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena

MAULANDA
www.goiena.net/blogak/maulanda

LANTEGI ETA TAILERRAK

TALLERES CARPINS S.L.
www.carpinsa.com

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik

EGO
www.goiena.net/blogak/ego

LORADENDAK

EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore

MAYTE
www.goiena.net/blogak/mayte

OINETAKOAK

KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OPARIAK

MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multiopicas

OSTALARITZA

GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia

PUBLIZITATE AGENTZIAK

ADOX
www.adoxnet.com

SKATE&SNOW

LAINO
www.laino.info

SUKALDEKO ALTZARIAK

BASTIDA SUKALDEAK
www.goiena.net/blogak/bastida

TABERNAK

EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea

ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

ZIRIPOT
www.goiena.net/blogak/ziripot

TATUAJEAK

GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganeshia

TAXIAK

GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK

GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA
www.aizue.com

UMEENDAKO ARROPA

HAURTIXOA
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

ZERBITZU DIGITALAK

ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILEA

ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

Bisita ezazu:
www.goiena.net/merkatua

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira.

Bonbereneak ateratako CD baten parte hartu eta Bide Ertzeaneko Jon Ubedak bota zion begia Jone Otxoa-Aizpurua anoetarrari. Gaztearen talentuari ihes

egiten utzi nahi ez eta sei abestiko diskoa grabatu zuten iazko udazkenean. Oraingo astean beteko ditu 20 urte Jonek eta poliki-poliki badoa oholtzarik oholtza

eskarmentua hartzen, jendaurrean kikildu barik. Zapatuan Arrasateko Ederra tabernan egin zuen emanaldia Jonek, Elkartasun Eguneko egitarauaren barruan.

JONE OTXOA-AIZPURUA | BAKARLARIA

"Belaunaldi berriok aurrekoek bezain zail dugu zerbait lortzeko"

Jon Berezibar

Istoria pertsonalak jendaurrean kontatzeak ez dizu erreparorik ematen?

Den-denak ez dira nire istorioak izaten. Zure bizitzatik ematen duzu, baina nire abestietako letrak ez dira bizitza errearen isla. Tarteka badaude gauza erre-alak, baina asmatutako istorioak ere badaude. Gainera, maitasunaren ingurukoak badaude, baina saiatzen naiz beste gauza batzuetaz ere hitz egiten. Badaude hitz egiteko aukera ematen duten beste gai asko.

Zeintzuk dira hartzen dituzun gaiak?

Esan bezala, maitasun kontuak daude, baina modu berean gure herria, beldurrak, emakumearen inguruko gauzak, denbora aurrera doala, etorkizunari begiratzeko moduak... Horrelako gaiak.

Zuk ere triste zaudenean idazten dituzu abestiak?

Egia da sentimendu triste edo ilunagoak errazago ateratzen direla. Ez dakit zergatik izango den. Nik, behintzat, errazago idazten ditut.

Hala ere, abesti tristeagoei diskoan melodia arinekin ematen diezu buelta. Hala nahi zenuen?

Gitarrarekin bakarrik jotzean kutsu malenkoniatsuagoa hartzen dute abestiek, bakarlariaren kutsu hori. Bateria, gitarra elektrikoa eta baxua sartzean abestiak beste itxura bat hartzen du eta horrela nik ere abestia osoago ikusten dut, eta eragin positiboa dela uste dut.

Erosoago nola aurkitzen zara?

Lehen, bandarekin hainbeste ibilia ez nintzenean, gitarrarekin lasai ibiltzen nintzen. Orain, baina, jakinda aldamenean baxua eta bateria izatea zer den, gusturago sentitzen naiz, espazio handiagoarekin. Dena ez dago nire mende, eta bandak emandako indarrarekin gustura egoten naiz. Hala ere, bakarrik

zerbait egin behar bada ez daukat arazorik.

Jendaurrean abesteko beldurrik baduzu?

Ez nuke beldur moduan definituko. Beti daukazu halako korapilo bat, baina hasierako momentu hori izaten da, behin gitarra hartu eta mikrofono aurrean jarritakoan ahaztu egiten zaizu. Denborarekin ohitu egiten zara, baina beti dago kilika hori hor. **Zuzenekoetarako banda daukazu?**


Normalean nik gitarra jo eta baxu eta bateriarekin ibiltzen naiz, hirukote moduan, oraingoz. Txapelketa baten egon nintzen, baten bakarlari gisa eta beste baten Anoetan sortu genuen neska talde batekin. Kontzertu batzuk eman genituen talde moduan. Jendaurrean agertzearena disko honekin bizi izan dut gehiago, ordea.

Oraingo astean 20 urte beteko dituzu. Hain gazte izateak ez zaitu atzera botatzen?

Ez dakit jendea harritu egingo den... Jotzen nagoen unean ez naiz pentsatzen egoten 19 urte ditudala eta eszenatoki baten gainean nagoela. Gustatzen zaidan zerbaitekin da eta hala ateratzen zait. **Sarri neska izateagatik bakarrik da aipagarri musikari bat, salbuespen izango balitz bezala.**

"Gitarrarekin bakarrik jotzean abestiek kutsu malenkoniatsuagoa hartu ohi dute"

"Ez dakit ahotsak izaera berezia izaten saiatzea garrantzitsua den, landua izatea hobe"



Joandako udazkenean diskoa grabatu eta abestiak aurkezten dabil orain Jone.

J.B.

Akaso, musika munduan emakumeek oztopo handiagoak gairatu behar dituztela egia da, baina gaur egun gero eta emakume gehiago daude eszenatoki gainera igotzen direnak, eta topikoei gero eta kasu txikiagoa egiten zaie. Haiei jaramonik egin

"Gero eta emakume gehiago daude oholtzetan, oztopoak oztopo, eta poztekoa da"

"Urte hau diskoa aurkezten egingo dut eta etortzeko dena etorriko dira, presiorik gabe"

gabe aurrera egin behar da, bueltak ematen hasteak ez du eta merezi. Euskal Herrian gero eta emakume gehiago animatzen da gustatzen zaion hori egitera. Gizonek adinako gaitasuna daukagu, eta pozgarria da. **Zure erreferentzia emakumezko musikariak dira?**

Denetatik entzuten saiatzen naiz. Beharbada emakume aho-tsek gehiago egiten didate tira, baina bai bakarlari zein talde, denetarik entzuten dut. Denak entzunez zu hobeto osatzen zara, baten mugatu beharrean. **Euskal eszenan badaude emakumeak bidea zelanbait ireki dutenak. Belaunaldi berrikoek errazago daukazu?**

Belaunaldi berriek zerbaite lortzeko, aurrekoek bezala, oso zail daukagu. Gustuko duzu zerbaitean zure bidea egiteko aukera izaten baduzu, nahikoa da batendako. Bidea oztopoz bete dago, baina iruditzen zait lan

eginda aurrera egin daitekeela, neurri baten.

Ahotsari garrantzia ematen diozula ematen du. Izaera berezi baten bila zoaz?

Ez dakit izaera berezia edukitzeak garrantzirik baduen. Ahotsa lantzea gustatzen zait eta garrantzia ematen diot, baina gero zer gertatuko den ez dakit. Nik ez dut nire burua askorik presionatzen, alferrik da. Etortzeko dena etorriko da, batek daki ze aukera etorriko diren. Nik kontu horrekin ez dut burua askorik puskatuko, badakit ahalegina egingo dudala.

Bazabiltza hurrengo diskoan pentsatzen?

Urte hau diskoa aurkezten amaituko dugu eta etorkizunean zer etorriko den ere ez dakigu oso seguru. Sokari tiratzeko nire abestia egiten jarraitzen dut, baina gero zer gertatuko den ez dakit. Nik ez dut nire burua askorik presionatzen, alferrik da. Etortzeko dena etorriko da, batek daki ze aukera etorriko diren. Nik kontu horrekin ez dut burua askorik puskatuko, badakit ahalegina egingo dudala.

Bederatzi ikuskizun, film emanaldi eta erakusketa, Txotxongilo Mostran

Txotxongilo emanaldiak egingo dituzte Bergarako kaleetan, Pol-Pol tabernan eta gaztetxean eguenetik aurrera

E. Mendibil / L. Kortabarria

Helduendako Txotxongiloen Mostra zortzigarren ekitaldira iritsi da, eta egunean, hilaren 15ean, hasiko da bere xarma zabaltzen Bergarako kaleetan, gaztetxean eta Pol-Pol tabernan.

Hasiera ekitaldia Aroztegi aretoan izango da, 20:00etan. Aurkezpenaren ondoren, martxoan Lleidan ospatutako Animac jaialdiko animaziozko film onenak erakutsiko dituzte.

EGITARUA

Emanaldiak ere egunean hasiko dira. Lehen egunean, *Las maravillas de Oriente* delako emanaldia egingo du Pa Sucat

taldeak kalean, 18:00etan. Egubakoitzean, hilak 16, *La divina comedia* delakoa egingo dute Pep Gomez & Pepe Otal-ek Pol-Pol tabernan, 20:30ean; eta, gaztetxean, *Paella* saioa izango da Roman y Cia taldearen eskutik.

Asteburuan, beste sei txotxongilo ikuskizun izango dira: batetik, kalean, Kukubiltxo taldeak *Kukubel* antzeztuko du, 12:30ean; Pol-Polen, *Historias para un desván* ikuskizuna aurkeztuko du Teatro Urgentek; eta gaztetxean, *No toquen mis manos* delakoa egingo du Valeria Gugliettik. Azkenik, domekan, *La gran familia* izango da kalean, 13:00etan; *Entre diluvios*, Pol-Polen, 20:30ean, eta *Pin ups* gaztetxean, 22:30ean.

Hiru talde Kataluniatik datoz; bi daude Madrilgoak, eta bana Euskal Herrikoak, Venezuelakoak eta Salamancakoak.

ERAKUSKETA

Mostrak irauten duen bitartean, *Stopmotion: cine y marionetas* erakusketa izango da Aroztegin. Eguen arratsaldean inauguratuko dute, eta hiru egun osoz izango da zabalik.

Labur

Film emanaldiak eta ikuskizunak izango dira Aste Zapatistan

Eskoriatzako Txiapasekin Elkartasun Taldeak Aste Zapatista antolatuko du, eta film emanaldiak egingo dituzte gaur, astelehena, Naira tabernan; bihar, martitzena, Aldatzen; eta eguaztenean, Inkernu tabernan, 22:00etan. Bestetik, Txiapasen gaineko diapositibak emango dituzte egunean, hilak 15, kultura etxean, 19:00etan.

Ikuskizunak ere antolatu dituzte: ipuin kontaketa bihar, martitzena, nagusien egoitzan, 16:30ean; eta Niko eta Periko pailazoan ikuskizuna, bihar hori ere, Herriko Plazan, 18:00etan.

Mari Carmen Laskurainek margolan erakusketa du Elgetan

Mari Carmen Laskurain margolari bergararrak erakusketa ipini du Elgetako Espaloia antzokian, eta ekainaren 28ra arte egongo da ikusteko aukera.

Urtean behin taldeko erakusketa baten parte hartzen du, eta bakarka ere egin izan ditu erakusketak, Bergaran eta Eibarren. Espaloian, 18 margolan dauzka: paisaiak, loreak, natura hilak... Olioa du gustuko, eta figurazko margoa egiten du. 17 urte inguru daramatza margotzen.

Nazioarteko gerra giroaren inguruko antzezlanak egingo dute

Madrilgo leku bakarti baten auto istripua izan dute lau medikuk, eta bizikletan zihuan dokumentazio gabeko arabiar gazte bat hil egin da. Larrialdietara deitu dute, eta jakin dute tren batzuetan atentatuak gertatzen ari direla. 2004ko martxoaren 11 da.

Abiapuntu horretatik, nazioarteko gerran Mendebaldeak duen erantzukizunaz gogoeta egiten du *El tiempo herido* antzezlanak. Hilaren 16an, egubakoitza, antzeztuko du Traspasos taldeak Oñatiko Santa Ana antzokian, 22:30ean.

Hitzorduek



PIRINIOAK ETA ALPEAK BIZIKLETAZ EGINDAKO BIDAIAREN KONTAKIZUNA |

Aitor Arotzenak Irundik Austriara egindako bidaiako diapositibetan emanaldia egingo du

Europako mendilerro ederrenetarikoz batzuk ezagutzeko aukera izango da, Bergararik mugitu gabe, Aitor Arotzena bidaiariak *Pirinioak eta Alpeak bizikletaz abentura moduan* izeneko diapositibetan emanaldia egingo du-eta. Hilaren 15ean, egunean, izango da emanaldia kultura etxean, 19:00etan.

Irundik abiatuta, bi mendikate horiek zeharkatu eta Austriaraino joan zen Arotzena. Basoan, erreka bazterretan eta kanpin merkeenetan egiten zuen lo, eta su txiki bat eta kazuelatxo bat zeramatzen janaria prestatzeko. 180 diapositibetan zoragarriren bidez erakutsiko du bidaiaren kontakizuna.

ZINEMA I

- **Plan oculto** filma emango dute gaur Oñatin Gaur, astelehena, emango dute film hori kultura etxean, 19:30ean.
- **Misión imposible 3** filma emango dute Arrasaten Gaur, astelehena, emango dute film hori Amaia antzokian, 20:30ean.
- **Largo domingo de noviazgo** filma emango dute Elgetan Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.
- **La memoria de los peces** filma emango dute Arrasaten Eguenean, hilak 15, emango dute film hori zineklub saioan, Amaia antzokian, 20:30ean.

MUSIKA I

- **Rafa Ruedak bi kontzertu egingo ditu Debagoienean** Rafa Rueda musikariak kontzertua egingo du egubakoitzean, hilak 16, Elgetako Espaloia antzokian, eta *Saredun eskua* izeneko diskoa aurkeztuko du. Arrasateko jaietan ere joko du, ekainaren 24an.

ERAKUSKETAK I

- **Eskoriatzaren gaineko marrazkien erakusketa** Iraia Artzamendi arrasatearrak Eskoriatzako hainbat parajeren marrazkiak aurkeztu ditu *Eskoitza* izeneko erakusketan,

eta liburuxka baten batu ditu. Ibarraundi museoan dago erakusketa ikusteko aukera. Zabalik dago hilaren 18ra arte.

- **Bingen de Pedoren margolanak ikusteko aukera** Bingen de Pedro margolari bergararrak erakusketa du Gas-teizko Felisa Navarro aretoan (*Zerkabarren 2*), ekainaren 22ra arte. *Dulces ojos* du izenburua eta 20 lanek osatzen dute.
- **Baserritarren janzkera tipikoak ikusgai Eskoriatzan** Herri janzkerak izenburuarekin, baserritarren jantzi tipikoen erakusketa dago Inkernu tabernan uztailaren 1era arte.
- **Latinoamerikako emakumeen argazkiak** *Ahots propioa* duten emakumeak delako argazki erakusketa dago Arrasateko Emakume Txokoan hilaren 15era bitartean, 16:00-19:30.

IKASTAROK I

- **Arkeonet ikastaroa antolatu du Asmoz fundazioak** Internet bideko Arkeonet ikastaroa antolatu du Asmoz fundazioak. Ikerketa arkeologikoan gailentzen ari diren joera berrien gaineko ezagutzak ematea, eta arkeologia ikasleek jasotako kontzeptuetan sakontzea, horiek dira helburuak. Argibide gehiagorako: 943 21 23 69 edo arkeonet@asmoz.org.

Helduendako euskal dantzen ikastaroa

Helduendako euskal dantzen ikastaroa antolatzen dabil Aretxabaletako Loramendi. Interesa dutenek izena eman dezakete e-postaz (kultura@aretxabaleta.net) edo 943 71 10 27 telefonora deituta.

Gazteendako hiru ikastaro daude Arrasaten

Gazteendako capoeira, erromeriako dantza eta argazkigintza digital ikastaroak daude aukeran. Izenematea, Gazte Informazio Bulegoan (943 77 00 65).

LEHIAKETAK I

• **Gomendatzen dizut...** lehiaketan parte har daiteke Arrasate eta Bergarako gazte informazio zerbitzuek *Gomendatzen dizut...* lehiaketa deitu dute. Oporren gaineko gomendioak eskatzen dituzte. Sariak dira, Arrasaten eta Bergaran, 500 euroko balioa duen oporralditxo bat; eta Arrasaten, horrez gain, 17 urtetik beherakoendako, 300 euroko irteera bat.

OHARRAK I

• **Ibarraundi museoak ordutegi berria dauka** Honako ordutegia du Ibarraundi museoak: aste-gunetan, 09:00-14:00; jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

Zorion agurrak



ARRASATE
Urko Oteiza
Ekainaren 1ean, 4 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikikoen partetik.



ARRASATE
Yamam Mjhed
Ekainaren 6an, 4 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Julen Aiastui
Ekainaren 7an, urtebete. Zorionak, mai-tetxoa, zure familia-koen partetik.



ARRASATE
Elena Kortabarria
Ekainaren 9an, 6 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikikoen partetik.



ARRASATE
Irati Santa Cristina
Ekainaren 11n, urtebete. Zorionak eta muxu bat! Familiako guztien partetik.



ARRASATE
Eneko Elizaran
Ekainaren 11n, 4 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikikoen partetik.



ARRASATE
Iratxe Atxa
Ekainaren 10ean, 21 urte. Zorionak, lan-kideen partetik, produktora!



ARRASATE
Iker Alonso
Ekainaren 15ean, urtebetetza. Zorionak, etxe-koen partetik.



ARRASATE
Unai Alonso
Ekainaren 15ean, urtebetetza. Zorionak, etxe-koen partetik.



BERGARA
Julen Gardoki
Ekainaren 12an, 5 urte. Zorionak eta muxu bat, etxe-ko guztien partetik!



ARETXABALETA
Maria Agirre
Ekainaren 15ean, urtebetetza. Urte askotarako, potxola! Lagun ezkutua.



OÑATI
Amaia Goitia
Ekainaren 13an, 26 urte. Zorionak, Amaia. Koadrilakoak.



ESKORIATZA
Mikel Elortza
Maiatzaren 12an, 6 urte. Zorionak eta muxu bat. Etxekoak eta Ane.



ANTZUOLA
Amaia Mundiñano
Ekainaren 11. Zorionak, amatxo! Goienako lankideen partetik.



ELGETA
Maider Arkarazo
Ekainaren 5ean, urtebete. Zorionak, etxe-koen partetik.



ELGETA
Samu Gorrotategi
Ekainaren 8an, urtebetetza. Zorionak, mutill! Musu handi bat. Lagunak.



OSINTXU
Uxue Zubizarreta
Ekainaren 12an, 3 urte. Zorionak, etxe-ko guztien partetik, bereziki Unaiak.



MENDIOLA
Deiane Arrieta
Ekainaren 14an, urtebetetza. Zorionak, Vanel! Goienako lankideak.

Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!
Zorionak!

Zorionak!
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ASTELEHENKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaitza
ezusteko ederra!

Jaiotakoak



Julen Barbero Beitia
Arrasate • 3,500 Kg. Hilaren 3a. Gurasoak: Patxi (Arrasate) eta Lurdes (Aramaio). Ama eta Leire eta Ainhoa lehengusinekin argazkian.



Ian Moran Olea
Aretxabaleta • 4 Kg. Hilaren 4a. Gurasoak: Naiara (Aretxabaleta) eta Luis (Gasteiz). Argazkian aitarekin.



June Oruna Tena
Arrasate • 2,890 Kg. Hilaren 6a. Gurasoak: Luci (Arrasate) eta Zigor (Arrasate). Argazkian aitona-amonekin. Argazkian June bapo lotan.



Enaitz Martin Rego
Eskoriatza • 3,510 Kg. Hilaren 7a. Gurasoak: Angela (Zamora) eta Antonio (Arrasate). Argazkian Enaitz goxo lo.



Naia Mateos Ramudo
Eskoriatza • 3,200 Kg. Hilaren 7a. Gurasoak: Sonia (Bergara) eta J. Antonio (Aretxabaleta). Argazkian Naia bere kuman.



Ibai Remon Martin
Arrasate • 3,400 Kg. Hilaren 8a. Gurasoak: Maider (Bergara) eta Manu (Arrasate). Argazkian Ibai bapo lo.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAk** egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com helbidera
edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tarteak
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7
ARRASATE IRRATIA

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:30

Asier Etxagibel eta eskola txikien egoera

Asier Etxagibel arrasatearrak Euskadiko Xake Txapelketa irabazi berri du, infantil mailan, eta gaurko irratsaioko gonbidatueta bat izango da. Era berean, Ainhoa Larrañagarekin eskola txikien egoera izango dute aztergai.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Eguerdiko saioa' | 12:10

Debagoieneko urak aztergai

Gipuzkoako Ur Partzuergoak bisita gidatua antolatu du gaurko, Debagoienean kontsumitzen den uraren ziklo osoa ezagutzera emateko. Jose Saizar Ur Partzuergoko teknikariak hainbat argibide emango ditu eguerdian.

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 10:00

Itoizko egungo egoera aztergai izango dute

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 10:40

Zer inportatzen eta esportatzen dugu?

Herri Irratia

FM 99.8

'Kalez kale' | 11:30

Soraluzen Erregetxo aparkalekuaren proiektua

GOITB programazioa

Astelehena, 12



'Harmailatik': bailarako kirola aztergai
21:15

Hainbat kirolekin denboraldia amaitu da, baina badaude zenbait talde lehian oraindik. Julen Iriondoren eskutik, bailarako kirolarien jarraipena.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Elitze beroa.
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Sustraia.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Behazulo. Eskola txikiak hizpide.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Jazz zikloa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Martitzena, 13



'Berbaire': gizarte eta politika gaiak
22:15

Iban Arantzabal aurkezlearekin batera (argazkian), Miren Elgarresta, Larraitz Ugarte, Ainhoa Larrañaga eta Jon Iñaki Lasa arituko dira solasean.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bidea.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz zikloa.
- 17:30 Danbaka saioa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea. Ukenduak.
- 18:15 Munduari bueltaka.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Jaiak 2006: Beasaingo Jaiak.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Behazulo. Eskola txikiak hizpide.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Eguaztena, 14




Lourdes Idoiaga 'Debarri'-n
21:47

Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatua elkarrizketatuko du Alberto Gorritiberea kazetariak. Ikus-entzuleek ere parte hartzeko aukera izango dute.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Danbaka.
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Sustraia.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta Zorion Agurrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Debarri.
- 22:15 Teknopolis.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Erreportajea. Ukenduak.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Eguena, 15



Manex Agirre 'Didjeridu' saioan
22:15

Manex Agirre bertsolari aramaiarra elkarrizketatuko du Amagoia Lasagabaster kazetariak. Granadan literatura ikasten ari da Agirre.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Sustraia.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Debarri: Lourdes Idoiaga.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz mintegia.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Jaiak 2006: Beasaingo Jaiak.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Egubakoitza, 16



Xabier Amuritza 'Ilunpean' saioan
22:15

Dagoeneko 100. saiora iritsi da *Ilunpean*. Gaurkoan Xabier Amuritza bertsolari eta idazlea izango da Oihana Elortzaren gonbidatua.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Elitze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean: Xabier Amuritza.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Debarri.
- 00:15 Berriak.
- 00:45 Amaiera.

Kamera aurrean



"Horrenbeste organo emaille ez balira egongo, gutako asko ez ginatke gaur egun hemen egongo"

JUANITO ARRIARAN | ATCORE ELKARTEKOA
Berriak, 2006-06-07



"Hainbat espezie desagertzen da urtero. Arriskua da desagertze hau oso azkar gertatzen ari dela"

PEIO GARAI | ARRASATEKO BASOETAKO TEKNIKARIA
Berriak, 2006-06-06

'Behazulo'

GOIATZ ARANAREKIN

Egubakoitzean, ekainaren 16an,
21:15ean



Ikustekoa!

Ekainaren 12a: 090 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, ekainak 12, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

Harpidetza kuota:

24 euro

2006 bukaera harte.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**


Bi gonbidapen **ELGETAKO ESPALOIAN** izango den **RAFA RUEDA**ren kontzerturako.

- Igor Iñurrategi Irizar (Bergara)

Sei gonbidapen **EIBAR-FERROL** futbol partidurako (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Resu Abasolo (Aretxabaleta)
- Jesus Antonio Sasiain Etxabe (Oñati)
- Aitor Gutierrez Elkorro (Bergara)
- Carlos Martinez Altuna (Arrasate)
- Pablo Llorete Arrastia (Antzuola)
- Ixone Iregi Billar (Eskoriatza)

Ekainaren 19ko sariak



- Bi gonbidapen **FLORIDA - GURIDI** zinemetara joateko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).



DONOSTIAKO AQUARIUMa

bisitatzeko bi gonbidapen.
(saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



Hamarrekoa

MIREIA GABILONDO | AKTOREA

"Txikitan albistegiak egiten genituen atarian, auzoko eta herriko kontuak esateko"

Oihana Elortza

1. Kutsidazu bidea, Mireia. Orain arte inork ez dit hori esan, baina agian entzungo dut hemendik aurrera, irailetik aurrera batez ere.

2. Donostiako Zinemaldian aurkeztuko duzue filma, ezta? Bai. Muntatze lanak bukatzeaz ditugu, baina irailaren 28rako gertu egongo da, ziur. Filmaz gain, telebistarako bost kapitulu ere muntatu behar ditugu.

3. Ezaguna den produktua zuzentzea erronka handiagoa da? Ez dakit zer esan. Argi dago gero konparazioak egongo direla, beti gertatzen da gauza bera, baina filmean liburuan gertatzen ez diren beste mila istorio ere badaude; ezberdinak dira.

4. Nola bereiz dezakegu Mireia Gabilondok eta Fernando Bernusek zuzendutako lan bat besteetik? Esaten dute sentimenduek indarra duten lanak aukeratzeko ditugula, eta agian arrazoi dute. 20 urte daramatzagu elkarrekin eta ondo ezagutzen dugu elkar. Lan kontuak etxera eramaten

dituzu batzuetan, eta egunak konplikatuta egiten dira orduan, baina tira...

5. El Florido Pensilantze lanean agertzen den bezalako eskola zen zurea? Ez ninduten jo eskolan, baina erlijio kontuak eta beste gai batzuk buruz nola ikasgarazten ziguten gogoan dut, tutik ez ulertu arren. Nire sei ahizpek, ordea, bizi izan zuten orain antzerkia den egoera hura.

6. Aktore izan nahi zenuen nagusitan? Pedagogia ikastera joan nintzen Donostiara eta Antzerki ezagutu nuen. Hiru bat urte geroago Pedagogia ikasketak utzi nituen antzezten ikasketako. Hala ere, gogoan dut txikitan abestea asko gustatzen zitzaidala eta albistegiak egiten genituela etxeko atarian, auzoko eta herriko kontuak esateko.

7. Orain sarri etortzen zara Bergara? Gutxi, eta aldatuta ikusten dut natorren bakoitzean.

8. Zer egiten duzu zatozen bakoitzean? Auzoan zehar paseatu eta lagunekin egon.



Unibertsitateko ikasketak egitera Donostiara joan zen Mireia Gabilondo bergararra, eta harrezkero hantxe bizi da. Aktore eta zuzendari lanetan ibili da antzerkirako nahiz telebistarako, eta irailean senarrarekin batera zuzendutako filma estreinatuko dute, *Kutsidazu bidea, Ixabel*. Alaba bat du, barazkiak asko gustatzen zaizkio eta eskolara joatea ez zitzaiola gustatzen aitortu du.

9. Donostian, oinez edo motorrean mugitzen zara? Oinez, ez dut gidatzeko baimenik. Hiruzpalau aldiz eman dut izena, matrikulak ere ordaindu ditut, baina oraindik ez dut baimena atera,

desastre hutsa naiz. Lagunek eramaten naute hara edo hona.

10. Almeria gustuko duzula esan didate. Bai, aspaldiko urtetan sarri joan gara hara.



Biharamuna

Leire Lardizabal

Espetxerainoko tsunamia

Elkartasunaren olatuak Arrasate irauli zuten zapatuan. Goizean goizetik izan zen jende mugimendua; Monterron atontzen zebiltzanak, haurrekin jolas parkean aritu zirenak, herri bazkaria prestatzen... Herri kiroltan ere izerdi franko utzi zuten koadrilek umore izpirik galdu barik! Termometroa 30 graduren bueltan. 180 pertsona inguru presoen alde lanean batuta. Eta ehunka pertsona jai herriko haren baitan gozaten. Ikaragarria! Arratsaldean zuzenean 18 kontzertu izan ziren oasi ihurtutako tabernetan. Erritmo brasildar, punki, rokanrolero eta makarrek harrapatuta, jendeak gogoz erantzun zuten kartzeletaraino ere heltzeko moduan jo zuten talde haien aurrean. Pausoz pauso, presoen esku-bideak aldarrikatzen, aspaldian ikusi dudak jendetzarik handiena bildu zen Sebero eta Monterron lotu zituen manifestazioan. Eta kaleko giroak pil-pil oraindik. Jendea tirri-tarra zebilen; gaueko kontzertuak noiz hasiko itxaiten, kanpotik etortitako asko. **Captain Nemo**, **Des-Kontrol**, **Arkada Social** eta **Antinowhere League** britainiarrek ez zuten hutsik egin; hankaz gora jarri zuten Monterron.

Konpromisoa eta umorea batu-ta, presoen esku-bideak aldarrikatzeke bozgorailu indartsu bihurtu zen Arrasate. Bertan egon ahal izan ez zuten preso eta iheslari guztiengatik eta guztientzako. Datorren urtean errepikatzeke moduan! Baina hobe Amnistiaren Eguna ospatzeko bada... Gaurko biharamuna aspaldian izan dudak goxoa izan da!

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

WEBGUNEAN ➔ www.smsoinu.com

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINU+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767 zenbakira
SMS bakoitzeko: 1,2€ + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abestaria) + KODEA

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**
Amore amore (Kandideko benta) | **AMORE**
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) | **ASKATA**
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**
Bi Minutero (Hertzainak) | **BIMINU**
Dub manifest (Fermin Muguruza) | **DUB**
Egunero (Hertzainak) | **EGUNERO**
EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR**
Elos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS**
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**
Entzuidazu (Aterking's) | **ENTZU**
Etorbizuna (Etsiak) | **ETORKI**
Ezer ez da betiko (Ken7) | **EZER**
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**

Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | **BELAIR**
Haizea (Ken7) | **HAIZEA**
Hegal egiten (Itzoiz) | **HEGAL**
Ikusi (Delirium Tremens) | **IKUSI**
Ibargia (Ken7) | **KEN**
Inpermuen ate joka (Gatibu) | **INPER**
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | **JOKIN**
Kaixo (Urtz) | **KAIXO**
Lau Teilatu (Itzoiz) | **ITZOILAU**
Laztana (Latzten) | **LAZTA**
Lotuta egon arren (Kokein) | **LOTUTA**
Loretzoa (EXKIXU) | **LORE**
Marea Gora (Itzoiz) | **MAREA**
Musturrek sartunde (Gatibu) | **MUSTURREK**
Nicaragua (Kortatu) | **NICA**
No time for love (Hertzainak) | **NOTIME**

Salve (La Polla) | **SALVE**
Sarrri Sarri (Kortatu) | **SARRI**
Sorginen Jaizena (Ekxiu) | **SORGIN**
Txatxo (Zarama) | **TXATXO1**
Txus (La Polla) | **TXUS**

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta biari) | **BEXAMELA**
Bokespok (Kepa Junkera) | **BOKESPOK**
Hiik lan eta nik jai (Tapia) | **HIK**
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | **ITSAS**
Kupela (Epelke eta Larraga) | **KUPELA**
Mila galdere (Alaitz/Maideri) | **MLAJ**
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | **HIRA**
Txanpon baten truke (Alaitz/Maideri) | **TXANPON**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

SATANAS	EHz	SORGIN4	AIZKORAK
TARTALO	IKURRIS	I ORA	BABAK
BASAJAUN	IKURRIS	LAUZ	ARRANAK

OHARRAK
1. BATERAGARRITASUNA: Begiritu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeke, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan, Altea ematea doan da eta Kb jaisiera bakarrak ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemari alta ematea doan dira.
* Euskaratutako deitu: 900 84 02 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123-ra. / * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurriarekin egiten ditugun abesti eta logopak, Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatala nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.